



**Ernai gazte-antolakundea Inurritegia prozesuan murgilduta dago, bere burua berregokitzeko.** ▶10



**Ustrukuk «euskarazko ahozko tradizioa erakutsi» gura du, Isabek Atxak eta Leire Saezek adierazi digutenez.** ▶15

# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**84. zenbakia**

2017ko  
otsailaren 9tik  
otsailaren 15era arte

## Bilgune Feministak, 15 urte

**Burujabetza feminista lortzea** helburu duen antolakundeak badu zer ospatu, eta oraindino zer egin ere bai. ▶22-23



## «Indar-metaketa beharrezkoa da, ezkerretik»

**Joxe Elorrieta Aurrekoetxeak** bere bigarren saiakera aurkeztu berri du: *Una mirada sindical contracorriente. Clase, territorio y nuevas alianzas*.

ELAren idazkari nagusi ohiak neoliberalismoa borrokatzeko indar-metaketa berri bat proposatu du, 1990eko hamarkadan LABegaz egin legez. Gainera, nazio-prozesu sobe-

ranista abiatzeko baliagarria izatea gura luke. Bere ustez EAJk hortik kanpo kokatu du bere burua, eta ez dauka argi EH Bildu prest dagoen elkarlan horretarako. ▶16-17

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

## Galdera aurkeztuko du Ados taldeak

**Erabakitzeko eskubidearen aldeko** herri-galdeketa galdera aurkeztuko du zapatuan, Sopelan, Uribe Kostako Ados taldeak. ▶8



**Erandioko Euskara Zerbitzuak** euskara bultzatzeko aurtengo kudeaketa-plana aurkeztu du; badu berritasunik. ▶5

**Leioako Behargintzak gazteak** laguntzen segituko du lehenengo lana aurki dezaten, trebakuntza eskainiz. ▶6

**Berangoztarren 23 proposamen** kontuan hartu ditu Berangoko Udalak 2017ko aurrekontuak osatzeko. ▶8

**Gorlizko aurrekontuak onartu** dituzte, aho batez. Ia 6,5 milioi eurokoak izango dira, iazkoak baino %0,95 txikiagoak. ▶9





## Polimaitasuna, Tosuko landara begira

**N**ire amorante berriaren begiradak kitzikatu-ta edo, sentimenduez hitz egiteko gogoz hel-du naiz 2017ko lehen zutabe honetara. Maitalea eta biok elkarri begira eman ditugu azken asteak eta, hizkuntza berdina hitz egiten ez badugu ere, asko kon-tatu diogu elkarri. Gure bizitze-tatik pasa diren beste maitaleez hitz egin dugu, gaur egun ditugunak aitortzeraino. Algortar-ron endogamia ezaguna da; horretaz harro sentitzen dena ere badago. Ni neu, horretan eror-tzen naiz behin eta berriro. Izan ere, Andra Marin, Tosun, borrokan zabiltzatenekin maitemindu naiz oraingoan. Inolako irabazi pertsonalik gabe, herriaren etor-kizunagatik, onura kolektiboen-gatik eta amalurrarengatik zuen denbora eta, beraz bizitza, ema-ten duzuelako. Zuen beldur eta kontraesanei aurre eginez eta mespretxuz begiratzen zaituzte-nei irrintziarekin erantzunez.

1000 pertsona inguru bildu ziren Ibarbengoako negozioaren kontrako manifestaldian; iku-sezinak antza EAJrentzat. Ironia ederra da Getxoko alkateak eta Ingurugiro zinegotziak Lan-da abizenak izatea, biek Tosuko landa eta herriko beste hainbat landen (Iturribarri kasu) koloni-zazioa baimentzen ari direnean. Ironia handiagoa oraindik Flo-rentino Perezena izatea parkin-ga egiten (gehiago) aberastuko den enpresa, loreak kendu bes-terik egingo ez dituenean.

Nire maitaleak harreman irekia proposatu dit; berak ere To-sukoekin zein, herrian, borroka kolektiboetan mugitzen direne-kin maitasun jokoetan ibili nahi duelako. Oso gaztea da, baina adin guztietakoak nahastu ei dira jolas horietan. Adi egote-ko esan diot, laster Tosun orgia berria antolatuko dutela entzun dut: poesia xuxurlatu, musika modernoa... Plazera bai, borro-ka ere bai! ◀

# Emakumeen Etxea

**Azpiegitura horren beharrianak** eta iritziak identifikatzeko prozesua abiatu du Udalak. Inkestak bete daitezke daborduko, eta bilera bi egingo dira.

**B**alizko Emakumeen Etxe baten inguruko beharrianak eta iritziak identifikatzeko, gogoe-ta-prozesu bat martxan ipini du Getxoko Udalak. Hartara, hainbat mekanismo eta gune eskainiko ditu, udalerriko emakumeen «lagin esan-guratsu baten» errealitatea eta iritziak jasotzeko. Horretarako, emakumeen profil ezberdinak kontuan hartuko dituzte; kontuan hartuz adina, jatorria, bizilekua, lanbidea, parte-hartzearen eremuak eta beste hainbat ezaugarri. Gogoeta-prozesuak fase bi izango ditu. Lehenengoan, sakoneko elkarrizketak zein paper eta online bidezko inkestak egingo dira, Udalak berdintasuna sustatzeko eskaintzen dituen zerbitzuen ingurukoak. Modu berean, Emaku-meen Etxeen katalogo bat eratuko da, gune horiek duten esangura azaltzeko, eta Emakumeen Etxe batek izan ditzan-



Hainbat herritan Emakumeen Etxea martxan dago daborduko. IORMAZABAL

keen aukerak eta ikuspegiak erakus-teko. Azkenik, otsailaren 9an, herritar guztioi zuzendutako topaketa egingo da Fadura kiroldegiko batzar aretoan, katalogoa aurkezteko. Halaber, EAE-ko Emakumeen Etxe biren esperien-tziak ezagutzeko aukera egongo da to-paketan. Aurretiazko fasean ateratako ondorioetatik abiatuta, bigarren fasea abiatuko dute. Horretan udalerriko emakumeak gonbidatuko dituzte iri-

tzia ematera etxeak eskaini lezakeen inguruko alderdi garrantzitsuenen gai-nean. Eztabaida-talde bi egingo dira, modu irekian, eta parte-hartzea bul-tzatuz, aipatutako gaien inguruko go-goeta kolektiboa egiteko. Lehenengo taldea otsailaren 21ean elkartuko da, Villamonteko kultur etxean; bigarre-na, hilaren 23an, Gobelaurre Bolunta-riotza zentroan. ◀

info+: Hiruka.eus/Getxo

## Andra Mariko jaien batzordea jende beharrean dago

**U**dalerriko eta auzoetako jaiak he-rritar denek gozatzeko uneak izaten dira. Getxoko San Isidroak, berba-rako, herritarrek antolatzen dituzte, beste herrikide askoren gozamenera-ko. Hala, Getxoko Andra Mariko jai-batzordeak jakinarazi duenez, maiatza-ren 15ean dena prest egon ahal izateko martxan daude daborduko; oster-a, ai-tortu dute denboraz larri dabiltzala eta jende gehiagoren laguntza behar dute-la. Diotenez, «jaietan topatu ohi ditugu aspaldi ikusi ez ditugun txikitako lagu-nak, institutu garaian gustuko genuen hura, txokolata edo goxokiak ematen zizkizun auzokidea, edo errieta egiten zizun bestea!». Hori dela eta, aurtan ere jaiak ganoraz eta polito antolatu ahal izateko jende gehiagoren parte-har-tzea bultzatu gura dute jai-batzordeko kideek. Horretarako, otsailaren 15ean, eguaztenean, Andra Mariko kirolde-gian egingo duten bileran parte hartze-ra deitu dute. Saioa 19:00etan hasiko da, goiko gela batean. ◀

harremanetarako: andramarikojaiak@gmail.com



San Nikolas  
IKASTOLA



Getxon, 2017ko otsailaren 1ean

Kooperatibista agurgarria:

**2017ko otsailaren 21ean, asteartea, Ikastolako egoitzan (Arene Azpi, 15) BATZAR NAGUSI ARRUNTA egingo dugu, lehenengo deialdia 19:00etan eta bigarrena 19:30ean.**

### GAI ZERREDA

1. Bi bazkide izendatu, batzarreko akta onets dezaten.
2. 2015eko irailaren 1etik 2016ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren Urteko Kontuen eta gizarte kudeaketaren onarpena, horrela badagokio.
3. 2015eko irailaren 1etik 2016ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren Urteko Kontuetatik ondorioztatzen den emaitzaren aplikazioa, horrela badagokio.
4. 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 30era doan ekitaldi ekonomikoaren Aurrekontuaren aurkezpene, horrela badagokio.
5. Kooperatibarako sarrera kuotaren onarpena.
6. Estatutuaren aldaketa: 25.2, 30.1 eta 30.2 artikulua, horrela badagokio.
7. Artezkaritza batzordearen izendapena, horrela badagokio.
8. Sanikolan: egindakoak eta egitasmoa.
9. Galdera eta erreguak.

Orzuri Aresti

Oharra: Urteko kontuen txostena eta estatutu aldaketa proposamenaren txosten justifikagarria web orrian daukazue eskuragarri.



## Getxo

# Loaren arazoei aurre egiteko, talde-lanak

**Algortako mediku-talde batek** tratamendu bat abiatu du lo egiteko zailtasunak dituztenen ongizatea bermatzeko.

Azken urteotan lo egiteko arazoa areagotu egin dela, eta, gainera, «efektu doilorrak» dituzten medikamentuak preskribitu ohi direla ohartarazi du Osakidetzako bertoko mediku-talde batek. Hala, lo hartzeko zailtasun horiek dituzten gizon-emakumeen «ongizatea bermatzeko» asmoz, Osakidetzako mediku aditu batzuek tratamendu berezi bat ipi-

ni dute martxan Algortan, Alangoko eta Bidezabaleko osasun-zentroetan. Hala, taldeko lanen bidezko tratamendu eskaintzen hasi dira hil honetan, otsailean; jakinarazi dutenez, datoren ekainera arte egongo da martxan programa. Tratamendu hori garatuko duen mediku adituetako bat da Per Rodríguez Lekube, berak azaldu du ekimena lo arazoak dituzten 18 urtetik



**Algortan, Alangoko eta Bidezabaleko osasun-zentroetan egongo da martxan tratamendua.**

gorakoei eta osasun-zentro horietan  
errolatutako gizon-emakumeei zu-  
zenduta dagoela. Talde horietan par-  
te hartu gura duten pazienteek euren  
medikua renera jotzea dute aukerarik

onena, informazioa jasotzeko. Talde-  
lanak maiatzean hasiko dira eta da-  
borduko horietan izena eman daiteke,  
«taldeetako jende-kopurua apuntatu-  
takoan arabera» izango da». ◀

## Lehentasunezko hizkuntza aukera daiteke Osakidetzan

Hizkuntza-eskubidea bermatzeko eta zerbitzuaren kalitatean sakontzeko guran, *Lagundu egiguzu hobetzen: Aukeratu zure hizkuntza!* goiburua duen kanpaina martxan ipini du Osakidetzak. Horren bitartez, erabiltzaileek osasun-arretan erabili gura duten lehentasunezko hizkuntza zein den jakinarazi ahal izango dute. Horretarako, hiru modutara adieraz daiteke zein hizkuntza gurago dugun: norbere osasun-zentrora hurreratuta; osasun-zentroan erizainari edo medikuari adierazita kontsulta batean; edo etxetik bertatik, webguneko Osasun Karpetan sartuta. Ekimen hori abiatu dute Osakidetza-ren Euskararen Erabileran Normalizatzeko II. Planaren (2013-2019) barruan. ◀

# Udal-langileen ezbeharren tasa jaistea lortu da

**G**etxoko udal-beharginen laneko ezbehar-tasa %23,71koa izan zen joan den urtean, 2016an; tasa hori ba-xuagoa da sektore horretan dagoen batez bestekoa baino (%39,6). Datuok Udaleko 18 lan-zentroetan jaso ziren intzidentziak dira; epe horretan 464 langilek behar egiten zuten bertan. Iaz 30 ezbehar izan ziren, horietatik 4 *in itinere*, hau da, auto istripuan lanera bidean. Horrez gainera, 19 beharginek ez zuten laneko baja hartu behar izan; erregistratu ziren 11 bajek 555 lan-egun galtzea eragin zuten. Udalak 2010ean Laneko Arriskuen Prebentziorako Zer-bitzua martxan ipini zuenetik, laneko ezbeharren kopurua «nahiko» jaitsi dela ondorioztatu dute udal-iturriek. ◀

LASTER  
ERAIKIKO DIRA  
PRÓXIMA  
CONSTRUCCIÓN

  
**Alangoeta**  
S.COOP.

**ALGORTA**  
(GETXO)  
ALANGO KALEAN



**36**

**etxebizitza kostu-prezioan**

2, 3 eta 4 logelakoak, garajea eta  
trastelekua barne; kooperatiba-erregimenean.

**3** desde **320.600** €-tik aurrera  
D/L

**4** desde **357.500** €-tik aurrera  
D/L

GESTIOA:





INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



*Inmoempresas*  
**Algorta**

[alangoeta.com](http://alangoeta.com)

**94 460 95 53**

Telletxe Kalea, 2, C (Algorta)

FINANTZIAZIOA:





## Getxo



Lope de Vega kaleko eraikina babestu gura du plataformak.

## Erromo Plataforma martxan dago

**Ibar nagusien etxea** hartzen duen eraikina bere horretan mantentzeko bideari ekin dio talde berriak.

**G**arapen bideragarriaren aldeko Erromo Plataforma plataforma sortu zuten Itzurbaltzeta/Romon, joan den abenduan. Getxoko Udalak 2017ko aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatu duela baliatuz, udal euskarategiaren eta Ibar nagusien etxearen eraikinak eskaintzen dituen zerbitzuak emateko «beharrezkoak diren baliabideak» bermatzeko eskatu diote Gobernu-taldeari. Halaber, Joseba Arregi Hirigintza zinegotziagaz batu gura lukete Erromo Plataformako kideek.

Ibar nagusien etxea, kultur etxea eta udal-euskarategia hartzen dituen eraikina bere horretan mantentzea da itzurbaltzetarren helburu nagusia. Horretarako, apaindurari, osasungarritasunari, irisgarritasunari eta erosotasunari dagozkion eraikinaren baldintzak «era egokian» eman daitezen, beha-

rezkoak diren baliabideak berma ditzan eskatu dio Udalari. «Uste dugu auzoak ezin dituela guztion onurarako diren hornikuntza horiek galdu», aldarrikatu dute auzokideek. Era berean, plataformako kideek jakinarazi dutenez, Hirigintza zinegotziagaz batzartu gura dute, euren «ezinegonak» jakinarazteko eta Gobernu-taldearen asmoak zeintzuk diren jakiteko. Horrez gainera, «Botatzeari ez» izeneko informazio-kanpainari ekin diote, eraikin hori bere horretan mantentzeko ahalik eta babes gehien lortze aldera.

Hainbat auzotarrez osatutako taldea da Erromo Plataforma. Azaldu dutenez, kezka batek batu ditu: «geure udalerrian, arlo sozialari zein urbanistikoari dagokionez, garapen ordenatua eta auzotarrekiko errespetuzkoa den garapena ziurtatzea». Hala, horri erantzuteko guran sortu dute taldea. ◀

## Sinergikak 10 arte-proiektu erakutsiko ditu 10 saltokitan

**S**inergika bekak jasotzeko hautatu dituzten arte-proiektuak ikusgai daude Algortako 10 saltokitan. Ekimen hori Getxolanek eta Getxoko Kultur Etxeak bultzatu dute, eta helburu nagusi ditu artista gazteen lana sustatzea eta bertoko hirigunea eta dendak dinamizatzea. Parte hartzen duten artisten proiektuak hilaren 28ra arte egongo dira ikusgai.

Hautatutako proiektuak askotarikoa dira, hainbat arte-diziplina erabili dira instalazioetan, berbarako, pintura, argazkia, eskultura eta narratiba. Horien bitartez, sortzaileek publiko-arekiko harremana bueltatu gura dute, eta lanak ikusgai dauden saltokiei lotutako gaiak ardatz hartu dituzte kasu gehienetan. Proiektu horiek publikoari hurreratzeko asmoz, arte-lanak sokena ezagutu gura dituzten interesdunek izena eman dezakete bisita gidatuen programa didaktikoan, hilaren



Proiektuko lanetako bat, erakuslehiu batean.

9an, 11n, 16an eta 18an egingo dira bisitak. Horietan, parte hartzen duten saltoki guztiak ikusiko dira, honako kale hauek: Bidebarrin, Sarrikobason, Illetan, Elorri, Gaztelumendin, Urkio-lan eta Bidezabalen. Iaz abiatu ziren Sinergika Bekak. Getxoarteren barruan sortutako proiektua bada ere, Getxolanen eta Kultur Etxearen arteko elkarlanean oinarritzen da; hori dela eta, zeharkako izaera du, artea beste arlo batzuetara erosten ahalegintzen da. ◀

## Argazkilaritza Sozialaren I. Lehiaketa antolatu du Sarekidek

**A**rgazkilaritza Sozialaren I. Lehiaketa antolatu du Sarekide boluntariotzako entitateen erakundeak. Lehiaketan, 14 urtetik gorako edozein pertsonak edo erakundek parte har dezakete. Argazkiak martxoaren 31 baino lehenago bidaltzea beharrezkoa da; kolorekoak zein zuri-beltzekoak izan daitezke, gai sozialakaz edo boluntariotzagaz zerikusia eduki beharko dute, eta formatu digitalean aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek; hala, argazki digitalak «kamara» sailera edo «mobil» sailera aurkeztu ahal izango dituzte. Argazkiak aurkezteko epea datorren martxoaren 31n amaituko da. ◀

info@sarekidegetxo.org

## Pedro Morenés areetarra, Espainiako enbaxadore AEBetan

**P**edro Morenés armagintza-enpresari getxoztarra Espainiako enbaxadorea izango da AEBetan. Pasa den urtera arte Defentsa ministroa zena Washingtonera joango da Donald Trumpen gobernuagaz harremanak estutzera. PPK 1996ko Espainiako hauteskundeak irabazi zituen Defentsako Estatu Idazkari izendatu zuten getxoztarra. Aznarren bigarren agintaldian, berriz, Segurtasun Estatu Idazkari izan zen, besteak beste. Kargu publiko horietan jardun aurretik sektore pribatuan ibilitakoa da, eta horra itzuli zen PPK agintaldia galdutakoan, 2004an. 2011n, PPK hauteskundeak irabazteaz batera, Defentsa ministro izendatu zuten. ◀

**GetxoGas**

**GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!**

Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00

**aldai**

Tapizteria  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

**Itñaki  
Bitxitegia**



Montblanc, Longines eta  
TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3  
94 430 23 45

Telleteke 1  
94 460 27 41  
Algorta

**GAVRKO**  
1967



**50. URTEURRENA**

GIZONENTZAKO  
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84



## Erendio

# Euskara bultzatzeko aurtengo kudeaketa-plana aurkeztu dute

**Zapatutan, Antzerki EguEnak** eta Zapatutan Olgetan dira nobedadeak.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren aurtengo Kudeaketa Plana aurkeztu du Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak. Egokiñe Angulo zinegotzi jeltzaleak zuzendutako arloak hiru beritasun nagusi ekarri ditu 2017an. Alde batetik, Zapatutan eta Zapatutan Olgetan ekimenak martxan ipini dituzte, «euskararen erabilerarako» daborduko «dauden sozializazio-guneak baliatzea eta berriak sortzeko» asmoz; Zapatutan Olgetan egitasmoak «talde txikietan eta familia giroan euskaraz jolasteko eta kantatzeko guneak» eskaini ditu urtarrean. Beste alde batetik, Antzerki EguEnak ekintza berriaren bitartez, «aisialdiko jardueretan



Planaren ebaluazioa aurtun egingo da, udaletxean zein kalean.

euskararen presentzia eta erabilera indartu» gura du Euskara Zerbitzuak.

Erandioko Udalak iaz luzatu zuen udalerriko Euskara Biziberritzeko Plan

Nagusia, 2017ko abendura arte. Eusko Jaurlaritzak martxan ipinitako ESEP plangintzagaz bat egin zuen. ◀

info+: [Hiruka.eus/erandio](http://Hiruka.eus/erandio)

## Quirón ospitaleko beharginek protesta egiten segituko dute, hitzarmenaren alde

Erandioko Quirón ospitaleko langileek orain arte astelehenetan egin-dako ordu biko lan-uzteak mantenduko dituzte datozen asteotan, Langileen Batzordeak jakinarazi duenez. Izan ere, ia erabateko segimendua izan dute «lan-hitzarmen duin» baten aldeko protestek: «langileen %99k egin du bat», ELA, CCOO eta Satse sindikatuen arabera. Halere, ez dute baztertu mobilizazioak zabaltzea, enpresak negoziatu ezean. Langileen Batzordearen iritziz, «negoziatioak geldituta daude». Euren eskaera da «hitzarmen propio bat izatea»: Espainiako estatuko «ospitale pribatu bakarra gara Langileen Estatutuak arautzen duena». Enpresak, ostera, defendatu du zentroak diru-galerak dituela. Ospitalean 250 bat behargin daude lanean zuzenean Quirónentzat; medikuek zenbait azpikontratentzat behar egiten dute. ◀

## Etxebizitza kolaboratiboen gaineko berbaldia, Altzagan

Iratzi Mogollón García soziologia-irakasleak berbaldia eskainiko du Erandion, zaintzaren arkitekturen inguruan. Hitzordua bariku honetan izango da, 19:30ean, Gautxoriak elkar-tearen lokalean, Altzagako San Jeronimo kalean. Izan ere, Erandioko Txoko Feminista eta Gautxoriak dira antolatzaileak. Berbaldian, Mogollónek Ana Fernándezegaz batera idatzi duen ikerketa aurkeztuko du: *Zaintzaren arkitekturak. Nagusientzako etxebizitza kolaboratiboak. EAEko eta Europako adibideak*. Aurkezpenaren ostean, eztabaidarako tarte ere izango da.

Bestalde, Udal Berdintasun Zerbitzuak inprobisazio-ikastaroa eskainiko



Ikerketaren aurkezpena. © EUSKO JAURLARITZA

du hilaren 17an, 18an eta 19an, Astrabuduko haur-eskolan. Prestatzaileak izango dira Zahira Montalvo eta Elba Ruiz, Kancaneo Teatroko kideak. Aurretik izena ematea beharrezkoa da. ◀

info+: [berdintasuna@erandioko-udala.net](mailto:berdintasuna@erandioko-udala.net)

## Bake-epaileari arrazoia eman dio Auzitegi Nagusiak

EAEko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoak ebatzi du ez duela ezelako ekimenik egin behar Jon Iñaki Rodríguez Erandioko bake-epailearen aurka, ez ziolako inori «errespeturik galdu». Pasa den azaroaren 22an, Erandioko Udalak eskatu zuen ikerketa, Udalbatzak hala eskatuta. Ganemos Erandiok eta EH Bilduk salatu zuten Rodríguezek beste auzokide bati «liskarra eragin» ziola eta EH Bildu koalizioaren udaltaldeak gutun publiko batean kritikatu zuen. Talde bien ustez, jarrera «liskartsu» hura ez zen bake-epailea izateagaz bateragarria. Kasu bietan, Rodríguezek Abaroa enpresak kaltetutako auzokide gisa aurkeztu zuen bere burua. ◀

## Gure Esku Dagok sinadurak batzen segituko du

Iazko udan, sinadura-bilketa abiatu zuen Erandioko Gure Esku Dago (GED) taldeak, «Erandiok Erabakia» adierazpenarekiko herri-babesa ikusarazteko. Erabakitzeko eskubidearen aldeko plataformak azaldu duenez, otsail honetan ere erandioztarren atxikimenduak batzen dabil, gerora testua Udalbatzan mozio moduan aurkezteko. GEDk datozen hiru domeketan emango du sinatzeko aukera 13:00etatik aurrera: hilaren 12an, Astrabuduko Josu Murueta plazan; hilaren 19an eta 26an, Altzagako Jado kalean. Eragi-leak deialdi zuzena egiten diete oraindino sinatu ez duten erandioztarrei, otsailean egin dezaten. ◀

**JUAN MARI**  
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25

**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK  
EUSKAL JANTZIAK

**AINGARA**

Aurrezki kutxa, t8- 48930 ERROMO-Getxo  
94 493 89 53 • [www.bordadosaingara.com](http://www.bordadosaingara.com)

txakoli  
**mota gane**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlonda parkea) Goleiri-Erandio  
94 467 00 07 • [www.txakolimotagane.com](http://www.txakolimotagane.com)

**hiruka**  
zaitez!

Urtean  
**35€**  
baino ez

Trukean:  
zozketak,  
sariak ia astero,  
astekaria eguaztenero...

**portu zaharra**  
bar

Portu Zaharra kalea 35  
48901 Algorta-Getxo  
Tl. 94 468 29 33  
[portuzaharra@portuzaharra.com](mailto:portuzaharra@portuzaharra.com)  
[www.portuzaharra.com](http://www.portuzaharra.com)

**OSABIDE** Hartz-Klinika  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA • 94 430 76 96



Leioa

# Lana aurkitzeko prestakuntza

**Leioako Behargintzak** lehenengo lana aurkitu gura duten gazteak laguntzen jarraituko du. Horrez gainera, 35 urtetik gorako langabeei ere laguntza emango die.



Gazteak eta enpresak harremanetan ipiniko ditu Hazilan egitasmoak. © LEIOAKO UDALA

Aurtengo helburuen artean, euren lehenengo lana lortu gura duten gazteei arreta eman gura die Leioako Behargintzak. Hala, besteak beste, Hazilan eta Txertatu Merkatuan proiektuak aurrera segituko du. Neska-mutilek enpresetan praktikak egiten hastea da asmoa. Hori dela eta, hainbat prestakuntza-ekintza aurreikusi ditu lan-erakundeak. «Enpresek hainbeste baloratzen duten profil balio-niztasuna lantzeko beharrezkoak dira horiek; izan ere, lan-merkatuak malgutasuna eskatzen du», azaldu dute.

Behargintzako arduradunek gogoratu dutenez, aurreko hilabeteen izeina eman behar izango dute gazteek hurrengo hilabetea ikastaroetan parte hartzeko. Horri lotuta, martxoan, ekintzailatza- edo autoenplegu-proiektu bat garatzen dabilzanentzat, enpresak zelan sor daitezkeen ikasteko 40

orduko kurtsoa antolatu dute, Leioako enpresa-mintegian. Bestalde, gazteak lehentasunezko multzoa izanda ere, 35 urtetik gorako lanbakoak ez ditu ahas-tu gura Behargintzak. Hala, «eten digi-tala konpontzen saiatzeko», oinarrizko informatikan trebatzeko 30 orduko ikastaroa egiteko aukera egongo da, Leioako KZgunean. Berbarako, posta elektronikoko bidezko mezu batean curriculum vitae-a eransteko, lan-bizitza deskargatzeko edo enplegu-eskaera berritzeko pausoak ikasiko dituzte ordenagailuakaz horren trebeak ez direnek. «Hala ere, bilatzen zabiltzana aurkitzen ez baduzu, eta zure prestakuntza edo profil profesionalaren inguruko erabakiak hartzeko laguntza behar baduzu, gogoratu zu laguntzeko prest gauzatzeko, orientazio eta prestakuntza ataletan», esanez amaitu dute Leioako Behargintzako arduradunek. ◀

info+: [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)

## Arbitraje Auzitegira jo dute Pinosolo auziko enpresek

Pinosoloko lehiaketa publikoa irabazi zuten enpresek eskutakotako arbitrajeari uko egin dio Leioako Udalak; urtarileko osoko bilkuran eman zien hartutako erabakiaren berri Mari Carmen Urbietak alkatetean alderdi politikoei. Aros eta Viuda de Sanz sozietateek osatzen zuten aldi baterako enpresa elkarteak Bilboko Merkataritza Ganberaren Arbitraje Auzitegira jo zuen iaz. Izan ere, Udalean ordezkartza daukaten alderdiek aho batez onartu zuten, 2016ko azaroaren 30ean, Pinosoloko proiektuaren esleipena ofizioz ikertzea. Denboran atzera eginez, Udalak Arcain enpresa kontratatatu zuen kiroldegia proiektu

tua esleitzeko lehiaketaren baldintzak prestatzeko. EAEko Auzitegi Nagusiak «frogatutzat» eman zuenez, lehiaketa publikoa deitu baino lehen, proiektua prestatzeko hainbat lan enkargatu zizkion Arosek arkitektura-enpresa bati; horren emaitzak Arcaini helarazi ei zizkion, etorkizunean izenpetuko zuten kontratuaren baldintzak prestatzeko. Orain, funtsa osatzeko 9.000 euro ipintzea, arbitroa izendatzea eta Arbitraje Auzitegian aurkeztea eskatu dio Merkataritza Ganberak Udalari. Eskaera horiei denei uko egin die alkatetean, esanez «administrazio publiko izanda, Udalak ez diolako arbitraje-azitegi bati men egin behar». ◀

## Itsasadarraren alboko errepideak berari uztea gura du Udalak

Leioatik igarotzen diren itsasadarraren ondoko errepideak doan berari uztea eskatu dio Udalak Bilboko Portuko Agintaritzari; 1997ko abenduaren 18ra arte leioaztarrenak ziren. Aipatutako bideak bi dira: Autonomia kalea, Areeta eta Bilbo arteko errepidea legez ezagutzen dena; eta Felipe del Rio kalea, Lamiakoko itsasadarraren eremua inguratzen duena. Errepideotako trafiko berrantolatu, eta itsasadarraren eratzeko gune horretan «leioaztarrentzat bideratutako etengabeko berreskurapen bat hasi» gura du Udalak. Agintari leioaztarren berbetan, «txirrindulariei eta oinezkoiei lehentasuna» eman gura diete egindako eskaeragaz. ◀

## Leioa eta Erandio arteko bazterrak euskaraz ezagutuz

Berbaldun mintzapraktika-egitasmoak txangoa egingo du domekan, otsailaren 12an; Leioatik Erandiorainoko bidea egingo dute, Axpurutik. Horretarako, 10:30ean irtengo dira Sako-neta kiroldegitik. Hala, joateko asmoa daukatenek antolatzaileakaz harremanetan ipini beharko dute, telefonoz deituz, whatsapp-mezua bidaliz edo helbide elektronikora idatziz. Berbaldun egitasmoak euskararen erabilera bultzatzea du helburu nagusia; horren barruan, Leioako inguruak ezagutzeko txangoak egiten dituzte. Asmoa da domeka goiza ematea euskaraz berba egiten eta txoko politikak ezagutzen. ◀

info+: 688 850 129 / [berbaldun.leioa@gmail.com](mailto:berbaldun.leioa@gmail.com)



*Kalitatezko irakaskuntza euskaraz*

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

**BETIKO**  
IKASTOLA

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
[info@betikoikastola.net](mailto:info@betikoikastola.net)  
[www.betikoikastola.net](http://www.betikoikastola.net)



ikastolenelkartea



Gai (des)ordena

LOHITZUNE RODRIGUEZ AURREKOETXEA  
Filosofian lizentziatua

### Oihartzun efektuaz 81 hitz

Nazkatuta nago. Ordenagailua piztu, sakelakoa begiratu, erantzunak bilatu. *Tuiter*, *guatsap* eta *feishuk*-en denok ados. Oihartzun handiz darabiltzate lagunek nik defendatzen ditudan lelo berberak. Bete zait beharra. Lasaitasuna, irudi gordinen atzetik. Oihartzun efektu barruan naiz. Bai, lagun onak! Denok bat, denok berdin. *Gugele*, *spotifai*, *iutube* eta *alispres*-ek behar ditudan produktuak eskaintzen dizkidate, bizi erraza, produktua ni izatera arte. Gaurkoan gaia adostasuna da. Leku komunak. Oihartzun efektua. Eta denak ados, denak berdinak bagina bezala pentsatze hutsarekin ere beldurtuta, denok. Eskerrak horretan ere ados gauden! ◀



## Mesedeetako Andra Mari hezkuntza-zentroa

Leioako erdigunean bertan dago ikastetxea. Itunpeko ikastetxe pribatua eta elebiduna da, euskal jendartearen murgilduta dagoena, plurala eta balioetan hezitzailea.

# Zu zara etorkizuneko hazia

### B eredua



### Adin-tartea

1-16 urte

### Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntzako 1. zikloa:  
09:00-12:00 / 14:30-16:30

\*Sarrera-ordutegi mailua  
07:30etik 10:00etara.  
Isteera-ordutegi mailua  
16:30etik 18:00etara.

Haur Hezkuntzako 2. zikloa  
eta Lehen Hezkuntza:  
09:00-12:30 / 14:30-16:30

Bigarren Hezkuntza (DBH):  
08:30-12:40 / 14:30-16:30  
\*Ostiralak 08:30-14:00

### Zerbitzuak

- Autopasa eta jantokia
- Haurtzaindegia

### Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko kultur jarduerak antolatzen dituzte eguerdiko eta arratsaldeko ordutegian
- Familiei eta ikasleei zuzendutako hezkuntza-orientabidea eskaintzen da

Mesedeetako Andra Mari hezkuntza-zentroa. Euzko Gudariak kalea, 1. 48940 Leioa • Tel: 944 639 906 • Faxa: 944 639 892 • Idazkaritza: c.mercedes@euskalnet.net  
[www.mercedariasleioa.org](http://www.mercedariasleioa.org)

**K**aritateko Mesedeetako serorek sortutako ikastetxea da Mesedetako Andra Mari zentroa; berton, ikasleak dira ekintzaren helburu nagusia, eta euren izaera esparru denetan gara dezatela bilatzen da.

Ikastetxearen antolatze moduak honako ezaugarri hauek ziurtatzen ditu: batetik, parte-hartzea sustatzen da, horretarako, hezkuntza-komunitateko kide guztiak baloratu eta horien motibazioa bilatzen da; bestetik, irakasleen etengabeko prestakuntza eta metodologia berritzaileen aldeko apustua egiten da. Azkenik, egoki kudeatzen dituzte proiektua aurrera ateratzeko beharrezko baldintzaak.

### Estrategia eta balioak

Balioetan hezteko da Hezkuntza Proiektuaren oinarria: ikasleei laguntzea gizakiaren existentziari zentzua ematen dioten oinarritzko galderei modu askean eta autonomoan erantzuteko prozesuan.

Dibertsitatea dakarten heltze-etapa ezberdinak errespetatzen dira, hezkuntza-komunitateko kideen artean eratzen diren harremanetan zein eboluzio-prozesuetan. Etengabeko harrera lagunkoia eskaintzea da ikastetxearen jarrera, eta hizketa-giroaren zein ulermenaren alde egiten da. Askotarikotasuna ikasteko aukera bezala ulertzen da, eta pertsonarekiko eta komunitatearekiko konpromisotzat dute dibertsitateari eskainitako arreta.





## Berango



Berangoeta parkea estaltzeko proposamena onartu du Udalak, besteak beste.

# Herritarren iritzia aurrekontuetan

**Auzokideek helarazitako 44** proposamenetatik 23 txertatuko ditu Udalak 2017ko aurrekontuetan.

**A**urtengo aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatu zuen Berangoko Udalak, azaroaren 8tik 30era bitartean garatu zuen. Ekimen horren bitartez, auzokideek 44 proposamen egin zituzten. Iritziak jaso ostean, teknikariek ideia horien bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa aztertu dute. Azkenik, Udalak aurrekontuetan txertatuko diren proiektuak jakitera eman zituen. Kontuak hala, jasotako 44 ideietatik 23 onartu dituzte, horien artean,

Berangoeta parkea estaltzea, bidegorrien tartea handitzea Gobela ibaiaren parean, Gobela ibaiaren ubidea hobetzea, hainbat errepide hobetzea, Berangorako sarreran sakanguneak ipintzea, paperontzi gehiago ezartzea udalerrian, kirolgunea hobetzea, eta bertan saskibaloizela bat ipintzea, besteak beste. Horiez gainera, aurrekontuetan txertatzeko beste 11 proposamen aztertzen dabilta udal-teknikariak, berbarako metro-geltokiaren kanpoaldea egokitzea, Kurtzesetik geltokirako sarreran eskailera-mekanikoak ipintzea eta saskibaloirako kanastak jartzea parkeetan. Bestalde, Udalak gainontzeko 10 proposamenak baztertzea erabaki du, «bideragarritasun ezagatik». ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)

## Urduliz

## Aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea, abian

**E**skualdeko hainbat udalek egin duten legez, Urdulizko Udalak ere aurtengo aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea prestatu du. Udal-arduradunek jakinarazi dutenez, bizilagunen «beharrak eta lehentasunak» txertatuko dituzte 2017ko aurrekontuen prestaketa-prozesuan. Horretarako, Gobernu-taldeak 6 proiektu egingarri mahai-gaineratu ditu inbertsio-atalaren barruan. Horiek egiteko 1.388.377 euro aurreikusi dituzte. Hala ere, 2017an partaidetza-proiektuak gauzatzeko gehienez 900.000 euro erabili ahal izango direla ohartarazi du Udalak. «Hortaz, bizilagunen esku

ipiniko da 2017ko aurrekontuetan zein proiektu sartuko diren zehazteko erabakia», gaineratu dute arduradunek.

Prozesua martxan dago daborduko, eta horretan udalerrian erroldatuta dagoen edozein pertsonak parte har dezake, 16 urtetik gorakoa izanez gero. Horretarako bost galdera dituen inkesta bat prestatu du Udalak, Internet bidez erantzun daitekeena. Horretan, lehenengo eta behin datu pertsonalak ematea beharrezkoa da; ondoren, emandako datu guztiak baliagarriak diren ala ez egiaztatuko dute udal-lan-gileek, baita behin bakarrik parte hartzen dela bermatu ere. ◀

## Sopela

# Osoko bilkuratik ospa egin dute

**Eztabaida politikoa «oztopatzea»** leporatu diote alkateari oposizioko zinegotzi gehienek.

**U**rtarrileko osoko bilkuran elektrizitatearen horniketaren eta kartoiaren bilketaren inguruan eztabaidatzeko mozio bana aurkeztu zuen EH Bilduk. Halere, salatu zuten, Gontzal Hermsilla EAJko alkateak proposamen biak «zentzuratatu» eta erregu, galdera eta mozio ez erabakigarrien txandan aurkeztu behar izan zituen koalizio abertzaleak. Udal-batzarrean alkateak EH Bilduko zinegotziak «gezurtitzat» jo zituela salatu zuten koalizioaren iturriek. Hori dela eta, Sopelako alkatearen «jauntxokeriaren eta errespetu faltaren» aurrean, EH Bilduko eta Orain

Sopelako ordezkariak udal-batzarren aretoa utzi zuten, Manuela Ruiz talderik gabeko zinegotziagaz batera. Horien denen esanetan, «Sopelarentzat garrantzitsuak diren gaiak plenoetan eztabaidatzeko borondate politikoko falta nabari da»; eta salatu dute hori ez dela halakoren bat gertatzen den lehenengo aldia. Hermsillaren berbetan, oster, aurkeztutako mozioak «Erregu, galderak eta mozio ez erabakigarriak» atalean sartzeko erabakiagaz «ez zeudelako ados» alde egin zuten osoko bilkuratik EH Bilduko zinegotziek. «Gezurti batzuk dira» esan zuenik ez du ukatu ezta baieztatu ere udal-agintariak. Alkateak dioenez, «gaia eztabaidatzeari ez diot sekula uko egin, gaia udal-batzarrean eztabaidatu zelarik». Hala ere, «gai bat» baino ez du aipatzen alkateak, eta bi izan ziren EH Bilduk aurkeztutako mozioak. ◀

## Ekintzaileei laguntzeko zerbitzu berria ipiniko dute

**E**kintzaileentzako Udal Bulegoa ipiniko du martxan Sopelako Udalak. Horren helburua da ekintzaileak laguntzea euren negozio-proiektuak garatzen eta martxan ipintzen. Zerbitzu publikoa eta teknologia berriak erabiliko dituzte zeregin horretarako. Bulegoak aurrez aurreko arreta-zerbitzua emango du, baina modu telematikoa ere bai, 24 orduz. Zerbitzu berria

ezagutarazteko informazio-kanpaina bat egingo dute. Horretan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute Sopelako udaletxean. Hala, izena ematen dutenek euren proiektuak garatu ahal izateko laguntza emango dien aholkulari bat izango dute, baina hainbat errekurtsorako 24 orduko sarbidea izango dute, online bidez. ◀

info+: [www.sopela.eus](http://www.sopela.eus)

## Uribe Kosta

## Uribe Kostako galdera aurkeztuko du Ados taldeak

**G**ure Esku Dago herri-ekimenak sortutako Ados taldeak Uribe Kostako galdeketa egingo duen itauna zein izango den jakinaraziko du zapatuan, hilaren 11n, Sopelako udaletxeko plazan, 12:30etik aurrera. Ados taldeak maiatzaren 7an egingo du herri-galdeketa, horrenbestez, orduan erantzun beharreko galdera zein izango den ezagutaraziko dute, zapatu honetan, jai giroan. Izan ere, bertsoak, euskal dantzak, kantak eta pandero-joleak ibiliko dira giroa alaitzen; 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute Ander Deuna ikastolan. Erabakitze eskubidearen aldekoek adierazi dutenez, azken ur-

teetan Gure Esku Dago mugimenduak definitu dituen ildoei lotuta, Uribe Kostako herritar-talde «zabal eta askotari-koa» lanean dabil erabakitze eskubideak bere adierazpena izan dezan gure eskualdean: herri-galdeketa Uribe Kostan egiteko asmoz, Ados taldea sortu zuten 2016an. Horri esker, galdeketa egiteko sinadurak batu zituzten, «eskualdeko biztanleriaren %12 eskuraturaz», zehaztu dute. Era berean, 30 laguneko lan-batzordea osatu dute, prestatzeko herri-galdeketa: egun berean egingo da eskualdeko herri gehienetan, hau da, Barrikan, Gorrizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen. ◀



## Gorliz

# Aurrekontu murritzagoa, aurten

**Gorlizko Udalak 2017ko** aurrekontuak onartu ditu, aho batez. lazkoak baino %0,95 txikiagoak izango dira.



6.435.462 euroko aurrekontuak izango ditu Gorlizek aurton.

Aurtengo aurrekontuak onartu ditu Gorlizko Udalak, alderdi guztien adostasunagaz. Zenbatekoa aurreko urtekoa baino %0,95 txikiagoa izango da; aurtengoa 6.435.462 eurokoa, gutzira. Hala erabaki zuten joan den urtarilaren 31n egindako osoko bilkuran. Bertan, Itxaso Martín zinegotziak aurrekontuen nondik norakoak aurkeztu zituen, horiek bozkatu aurretik. Diru-sarreraren harira, Udalkutxa Fondotik datozen 3.329.818 euroak nabarmendu zituen, hau da, zenbateko osoaren %51,74. Gainontzeko diru-sarrerak zerga zuzenetatik, zeharkako zergetatik, tasetatik eta ohiko transferentzietatik eratorritakoak dira.

Gastuei dagokienez, ohiko gastuak %19,42 handitu dira, behin-behineko langileen kontratuak bertan sartu dituztelako, eta «bide-publikoen zorua berritzeko 150.000 euroengatik eta ar-

kitektura zerbitzua bezalako kontratazio-enpleguak berritzeko gastuengatik ere bai», azaldu zuen Martínez. Inbertsioetara bideratuko dute aurrekontuen %9,77, hau da, 628.899 euro; aurreko urtean baino %18,54 gutxiago.

Lana sustatzeko planari dagokionez, aurreko urteko zenbateko berbera bideratuko du Gorlizko Udalak: 60.000 euro. Horietatik, 40.000 euro Gorlizlan tokiko egitasmorako izango dira; gainontzeko 20.000 euroak udalerrian lanik ez dutenen formakuntza-planetarako izango dira. Bestalde, 2017ko aurrekontuek hartzen dituzten diru-partiden artetik honakoak nabarmendu zituzten: Euskarari bultzada emateko planetarako 88.950 euro, berdintasunerako 15.000 euro, 50.000 euro ikastetxearen mantenurako eta 10.000 euro herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta gardentasunerako. ◀

info+: [www.gorliz.eu](http://www.gorliz.eu)

## Plentzia

## Argindar-fakturan ia 56.000 euro aurreztuta

Plentziako Udala elektrizitate-konsumoari jarraipena egiten dabil, eraikin publikoetan eta kaleko argiterian erabiltzen den argindarra gastua kontrolatzeko. Horri esker, «ia inbertsiorik egin gabe» gainera, urtean 55.971,33 euro aurreztearen lortu du, argindar-fakturaren %25, hain zuzen ere. «Emaitzak bikainak izan dira, bai ekonomikoki eta bai energiari dagokionez», baloratu dute udal-agintariek. Datozen hilabeteetarako, gainera, lan-plangintza bat prestatu du Udalak. Horren bidez, ekintza hauek egingo di-

tuzte: seguruak diren energia-iturri berriztagarrien bitartez energia elektrikoa hornitzeko lizitazio publikoa, eta argiteria publikoa berritzea argiztapen teknologia eraginkorragoak ezarritik. Horretarako, 95 argi-puntu aldatuko dira, «aurrezki ekonomiko handia (urtean 15.359,09 eurotik 4.609,14 euro gastatzera igaroz) eta hobekuntza tekniko eta energetikoak» eragingo dituenak. Horiek denak eta argindarraren faktura bat zertan datzan azaltzeko berbaldiak egingo ditu Udalak, «herritarrek jakin dezaten zer egin aurrezteko». ◀

## Gorliz eta Plentzia

## Korrikaren abestiaz girotutako zirku-jaialdia, gaztetxean

Euskararen aldeko Korrika antolatzeke taldeak martxan daude daborduko. Hori dela eta, ekimen hori ezagutarazi guran, Korrikaren aurtengo abestiaz girotutako eta zirku-oinarritutako jaialdia antolatu du barikurako, otsailaren 10erako, Euskarra Agendak. Horretarako hitzordua 17:00etan ipini dute, Plentziako Dantontzat gaztetxean. Zirku-jaialdia 3 urtetik gorako neska-mutilei zuzenduta dago. Hala, 20. Korrikaren abestiaz alaituta, askotariko trikimailuak egingo ikasi ahal izango dute txikiak. ◀

## Txikiren bakarrizketa ikusgai egongo da hilaren 17an, Gorlizen

Euskarra Agendak gogotsu hasi du urtea, urtarilean bertan bere lehenengo urteurrena betetzeagaz batera. Hori dela eta, hamaika ekimen dago egunotan Gorlizen eta Plentzian. Oraingoan Txikiren bakarrizketaz gozatu ahal izango da, Gorlizko Sertutxena aretoan, hilaren 17an, barikuan, 19:30etik aurrera. 2002 urtetik umorezko bakarrizketak eta antzerki munduan murgilduta dagoen aktorea da Txiki. Euskal Herriko hainbat txokotan emanaldi asko egin ditu, bereziki gaztetxe, taberna eta herri-antzekietan. ◀

**ARTOLOZAGA**  
**Tailerrak** ANAIK  
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
[www.talleresartolozaga.com](http://www.talleresartolozaga.com)

**BOSCH**  
Service

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

**Car Service**

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

prentsa · aldizkariak

**ITXASGANE**

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

**saiazgetaria**  
HOTELA

Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com)



## Uribe Kosta



Oihane Landazabal Bernabeu eta Asier Zamorano Arri, Ernai gazte-antolakundeko kideak.

# «Gazteri osoaren isla izan nahi du Ernaik»

**Ernai gazte-antolakundea bere** burua berrantolatzeko eta birdefinitzeko prozesuan murgilduta dago egunotan. Inurritegia prozesua garatzen dabil herriz herri, gazte-mugimenduko kide ezberdinakaz eztabaidan jardunez, ahalik eta iritzi gehien jasotzeko.

TESTUA / ARGAZKIA: IKER RINCON MORENO

**L**au urte joan dira Ernai gazte-antolakundea sortu zene-tik. Hala, gaur egunera arteko borroken errepasoa egin eta aurrera begirako erronkak zehazteko asmoz, II. Kongresua prestatzeko prozesua abiatu dute.

**Lau urte igaro dira Ernaik bere ibilbideari ekin zionetik. Egindako bideari zer deritzozue?**

Zerotik hasitako antolakundea izan da, militatzeko ohiturarik ez zuen jendea

ginen. Funtzionatzeko modua zein zen ere ez genekien eta bakoitza bere alde-tik zihoan. Horrek guztiak dena zail-tzen zuen. Garai horretan gazte mugimenduan ez zegoen borroka nahikorik piztuta, eta guk hartu genuen borroka horiek piztearen ardura. Hasiera ba-tean ez genituen baliabide askorik lan hori egiteko, eta ez genekien zein nora-bidetan kokatu behar genituen. Hasie-rako bi urteetan gure burua kokatzen ibili ginen, baina dagoeneko egonkor-tu gara. Hala ere, gure baloreen arabe-rako aldaketa bat emango diogu orain funtzionatzeko dugun era horri.

**Zein da gazte mugimenduaren egoera gaur egun Euskal Herrian?**

Lau urteren ostean, esan dezakegu au-rrerapauso nahiko handiak eman dire-la arlo horretan. Gazteraiiki prozesuari esker jendea saretzen hasi da, euren interes propioen arabera, eta proiektu alternatiboak martxan ipintzea lortu da, ildoz ildo. Gaztetxe eta gazte asan-bladen harira, azkenaldian egon den gainbeherari aurre egiteko, koordina-tzaile-talde bat ipini da martxan berri-ro ere, eta euren norabidea gaur egungo errealtatera egokitze prozesua abia-tu dute. Halaber, azken urtean gazteen

arteko mugimendu feministan aurre-rapauso handiak eman dira. Emaku-me gazteek antolatzeko beharra ikusi dute, benetan feminismoa errealtateko praktikara eraman ahal izateko.

**II. Kongresura bidean, Inurritegia prozesua hasi zenuten urrian. Orain Ernaik berak osatutako Zirtaka txos-tena lantzen zabiltzate...**

Gazte-antolakundearen birdefinizio prozesu honi Inurritegia deitu diogu gure lan filosofia xinaurri-lanarena de-lako. Gazte-mugimenduan egoteko eta harremanak sartzeko beharra ikusten dugu. Prozesua militanteetatik hara-go eraman nahi dugu, ahalik eta gaz-te gehienek ekarpenak jasotzeko. Gure proiektu politikoak gazte-mugimendu eta gazteri osoaren isla izan nahi du. Prozesua herriz herri eramaten gabil-tza, gure estrategia eta antolakuntza gaur egungo egoerara egokitze, bai-na baita herrietan Ernaik erreferen-tzia irabazteko ere. Kanpora begirako prozesu bat da, kanpoan eragin nahi dugu; gure oinarri sozialari aitortza eta eskaintza bat eman nahi diogu.

**Ernai eta Aitzina antolakundeek el-karlana irudikatzeko Gazte Akelarrea egingo duzue apirilaren 13tik 15era. Zer lortu gura duzue horregaz?**

Aitzinarekin egiten dugun ekimena da, nazio bat sortzera goazen heinean, Iparraldeko gazte antolakundeare-kin zubiak eta elkarlanak eraikitze-ko beharra ikusten dugulako. Ezker aber-tzalearen Abian prozesuak uzten di-gun premisarik nagusia da eginbide independentista bat martxan ipintzera goazela, eta guri dagokigu horren lan-keta gazte-mailan egitea. Independen-tzia gazteriaren erdigunean ipini behar badugu; horren aldeko arrazoia eman behar ditugu. Gazte Akelarreak antola-tzeko arrazoiak hori da, gazteon alda-rri independentista bazter guztietatik eraikitzen dabilela aldarrikatzea. ◀



Taularatu

**ÁLEX YGARTUA**  
Aktorea eta zuzendaria

## Zentro kulturala gurea da!

**B**aina hori zergatik esaten duzu? Gorlizko eta Plentziako udaletxeek bere aurrekontuetan bideragarritasun estudio bat onartu dutelako! Orain ikusi behar dugu estudio horrek zer esaten duen, eta ea egunen batean Gorliz eta Plentziaren artean zentro kultural bat eraiki eta kudeatzea posiblea litzatekeen. Pozteko berria da, behintzat aurrera egin dute, eta bien arteko iraganeko erlazioak begiratu, ez da berri txarra; kar, kar, kar. Gainera, plataforma baten berri entzun dut, bi herrien arteko Kultura zelan bultzatzea izango dute helburu. Ez dakit zenbat iraungo duten, egunen batean areka ba-tean agertuko dira eta... kar, kar, kar! ◀







Museoa bisitatzeaz gainera, ibilaldia egiteko aukera egongo da Bilbo inguratu zuen defentsa-lerroaren aztarnen artetik.

## Bisiten programa

### Nori zuzenduta daude

- DBHko 4. mailako ikasleei. Gehienez, 20-25 laguneko taldeak.
- Norbanakoak (taldea eurek osatuz gero) edo elkarteak. Gehienez, 20 lagun.

### Bisita-motak

- Burdin Hesiaren Oroimenaren Museora bisita. Iraupena: 1 ordu eta 15 minutu.
  - Museora eta Burdin Hesiaren aztarnetara ibilaldia (2 ordu eta 30 minutu).
- Oharra: Mendirako oinetakoak eta arropa erosoak jantzi.

### Abiapuntua

#### Irailak 17, zapatua

Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoko sarrera, Berangoetako kultur etxearen eraikina. Zehaztutako orduan egotea eskatu dute.

### Informazio gehiago

E-maila: [burdinhesia@berango.org](mailto:burdinhesia@berango.org)

Telefono-zenbakia: 688 851 043

Ordutegia: 10:00-14:00.

# Burdin Hesian barrena

**Ikasleak zein herritarrek** Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa bisitatzera gonbidatu ditu Berangoko Udalak. Astelehenetik barikura egingo dituzte bisitak; sarrera, doan.

**B**erangoko Udalak Batxilergoko eta DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako egitasmoa antolatu du: *Bakerako hezten* programaren bitartez, udalerrian dagoen Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa bisitatzera gonbidatu ditu neska-mutilak. «Bertan, gazteek, XX mendeko historia markatu zuen gertaera bat ezagutu ahal izango dute: 36ko Gerra», udal-iturriek zehaztu du-

tenez. Hala, Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa, gatazka horretako benetako objektuak eta dokumentuak ikusi ahal izango dituzte hezkuntza-zentroetako ikasleek. Horrez gainera, lubakien eta gordelekuen aztarnak ikusteko aukera edukiko dute, Bilbo inguratu zuen defentsa-lerro horren zatiak ziren horienak. «Ikasteko eta sentitzeko esperientzia bat da, gatazkan parte hartu zuten gizakien arlo

desberdinen inguruan hausnartzeko: elkartasuna, askonahia, traizioa... Azken finean, bakea, elkarbizitza eta giza eskubideen gaineko kontzientzia gartzeko», azaldu dute antolatzaileek.

Aipatu legez, *Bakerako hezten* hezkuntza-programa DBH 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago eta doakoa da. Lehenengo urtez egingo den esperientzia da, eta historiaren alderdi didaktikoa eta benetako testigantzak uztartzen ditu. Modu hone-tan, «gure memoria historikoaren eta gatazken inguruko kontzientziazio eta sentsibilizazio handiagoa izatea bilatzen da», agintari berangoztarren ara-

bera. Hala ere, Burdin Hesiaren inguruko gorabeherak ezagutzeko aukera edukiko dutenak ez dira ikasleak bakarrik izango: doako bisiten programa museoa ezagutu gura duten norbanakoei (taldea eurek osatuz gero) edo elkarteei zabaltzea erabaki du Udalak; urtarrilean hasi ziren ekimenagaz, eta otsailean ere eskaintzea erabaki dute, astelehenetik barikura. Horiei ere bisita-mota bi eskainiko zaizkie: Burdin Hesiaren Oroimenaren Museora bisita (1 ordu eta 15 minutu) edo museora eta ondoren defentsa-lerro horretako aztarnetatik ibilalditxo bat hainbat azalpenez josita (2 ordu eta 30 minutu). ◀

## Neguko Bidaia zikloa aurrera doa, Areetan

**U**rtarrilaren 21ean abiatu zuten Neguko Bidaia izeneko kontzertu-zikloaren bederatzigarren edizioa, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Otsailaren 25era arte, zapatuero egongo dira emanaldiak, 19:30ean. Emanaldi bakoitzeko sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da (ikasleentzat 3 eurokoa), eta 25 eurokoa saio denetarako bonua. Zapatu honetan, Antonio Oyarzabal piano-jotzaileak Schubert, Janacek, Debussy edo Tchaikovsky maisuen obrez osatutako egitaraua eskainiko du. Ohikoa denez, saioen ostean, entzuleen eta musikarrien arteko berbaldia egongo da. ◀

### Azken saioak

#### Otsailak 11, zapatua

**19:30** Antonio Oyarzabal piano-jotzailea, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan.

#### Otsailak 18, zapatua

**19:30** Gintonic rock progresibo banda, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan.

#### Otsailak 25, zapatua

**19:30** Blas Fernandez bateria-jotzaileak, *Urbanetniko* bere azkeneko diskoaren abestiak joko ditu, bere seikoteagaz, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan.

Saio bakoitzaren ostean, entzuleen eta musikarrien arteko berbaldia egongo da.

**Blogetan!** lehiaketaren bigarren edizioan izena eman daiteke, otsailaren 13ra arte

**B**logari euskaldunen jarduera sustatzeko eta blogik onenak aukeratzeko asmoz, Blogetan! Euskal Blogariak Lehian sariketaren bigarren edizioa martxan ipini du Azkue Fundazioak, *Argia* aldizkariaren laguntzagaz. Hala, otsailaren 13ra arte proposatu ahal izango dira blogak; «edozeinek aurkez dezake gustukoa duen bloga lehiaketan parte hartzeko, nahiz eta horren jabea edo idazlea ez izan», antolatzaileek argitu dutenez. Irabazleak Bernat Vidal artistak diseinatutako garaikurra jasoko du; herritarren eta epaimahakideen botoakaz aukeratuko dute. ◀

info+: [www.blogetan.eus](http://www.blogetan.eus)

**Udaberria** hasi aurretik antolatuko dute Loraldia jaialdia, Bilbon, hirugarren biderrez

**L**oraldia jaialdiaren arduradunek jakinarazi dutenez, «Primaderako Festibalearen hirugarren edizioa abian izango da loreen urtaroa hasi baino lehen»; martxoaren 7tik apirilaren 8ra izango dira emanaldiak, Bilbon. «Negu eta udaberri arteko zubian izango da aurten. Zubiak ditugu gustuko. Zubiak eraiki baititugu inguruko kulturekin», aitortu dutenez. Kontuak hala, besteak beste, Ipar Amerikako folkaren aitzindariak, Penintsulako surrealismoa, musika zelta edo Londresko hip-hop doinuak entzun ahal izango dira. «Zubiak loratuko dira, ez baitugu ulertzen sorkuntza elkarlanik gabe», diotenez. ◀



Begoña Bilbaok zuzentzen du *Jainko basatia* komedia dramatikoa. © TXALO PRODUKZIOAK



ERANDIO

# Jainko basatia antzezlana, Antzerki EguEnetan

Antzerki EguEnak ekimenaren barruan, Txalo Produksioak konpainiaren *Jainko basatia* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da, otsailaren 16an, Altagako lehengo azokan. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrera, doan. Horren bitartez, Udalak erantzuna eman gura die auzokideek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan eskatutako antzerkiaren,

azoka zaharraren eta euskararen aldeko apustuei. Daborduko, maiatzaren amaierara arteko antzezlanak iragarri dituzte: hilabete bakoitzeko hirugarren egunean euskarazko obra bat taularatuko dute.

*Jainko basatia* komedia dramatikoa da. Ezkondutako bikote bi elkartzen dira euren seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko; izan ere, bi-

kote baten semeak besteetarako erasotzen dira. Gizalegez eta edukazio hantzei bide bat emateko, elkarri kristorenak esaten hasiko dira, bartzuen eta besteetara frustrazio eta miseria azalduz. Aiziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta (Mikel Laskurainek ordezkatzen du batzuetan) eta Tessa Andonegi dira antzezleak. ▶

## ANTZERKIA

OTSAILAK 10, BARIKUA

### Kontularien Kluba

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo  
Aukeratutako gaia: Magreb. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

OTSAILAK 11, ZAPATUA

### Todas somos iguales

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio  
A Trompicones Teatro taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

OTSAILAK 12, DOMEKA

### Balio magikoak magia-saioa

18:00 | Berango Antzokia | Berango  
Oliver eta Evagaz. Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

## BERBALDIAK

OTSAILAK 9, EGUENA

### Titare bete zorion liburuaren aurkezpena

10:00 | Romoko nagusien etxea | Getxo  
Miren Agur Meabe idazle lekeitiarragaz. Euskaraz. Udal euskaltegiko ikasleez gainera, interesa daukan edozein joan daiteke; doan.

### La trilogía de la ambición del poder liburu-aurkezpena

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo  
Gaspar Antolín idazle getxoztarragaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

OTSAILAK 14, MARTITZENA

### Izoko Mertzxeren osagaien bila diapositiba-emanaldia

09:15/11:00/20:00 | Algortako kultur etxea | Korrika Kulturala. Julen Nafarrate kazetari berangoztarragaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

### Los mass media y la comunicación alternativa e indígena mahai-ingurua

11:00 | EHUko Kazetaritza-fakultatea | Leioa  
Komunikatuz Eraldatu ekimena. Besteak beste, Bashe Nuem kazetari argentinarrak parte hartuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

### Sexismo en los medios y comunicación no sexista mahai-ingurua

14:30 | EHUko Kazetaritza-fakultatea | Leioa  
Komunikatuz Eraldatu ekimena. Besteak beste, Martha Zeladi Beniko (Bolivia) Emakume Indigenen Elkarteko komunikazio-idazkariak parte hartuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 9TIK 22RA ARTE

### Pequeñas historias sin importancia

Algortako kultur etxea | Getxo

Lydia Jimeno Badiolaren eskulturak, margolanak eta beste artelan batzuk. Astelehenetik zapatuta. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 28RA ARTE

### Distantziak murrizten, errealitateak hurbiltzen

Algortako kultur etxea | Getxo

Zabalketa GKEren 25. urteurreneko argazki-erakusketa. Astelehenetik zapatuta. Sarrera, doan.

### URBANue II

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa

Udane Ibaristiren margolanak. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

## IKASTAROAK

OTSAILAK 14, MARTITZENA

### Argazki-edizioa

19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio  
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

## KONTZERTUAK

OTSAILAK 9, EGUENA

### Arana rock-taldea

20:00 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo  
Getxon Zuzenean zikloa. Sarrera, doan.

OTSAILAK 10, BARIKUA

### Plentziako Kantagune

19:00 | Kristo basiliza | Plentzia

Lehenengo, entseguia egingo dute. Ostean, 21:00etan, alde zaharrean eta erriberan abestuko dute. Eliz plazatik abiatuta.

OTSAILAK 11, ZAPATUA

### Eagles Tribute Tour

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Hey Mr Neken taldeagaz. Sarrera: 3 euro.

## ZINEMA

OTSAILAK 9, EGUENA

### Rastros de sándalo

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Izartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

OTSAILAK 10, BARIKUA

### Joy genero-ikuspegiko filma



## Korrikaren kantak girotutako zirku-jaia

Plentziako eta Gorlizko Euskara Agentzaren barruan, bariku honetan, otsailaren 10ean, zirku-jaia egongo da, Danontzat gaztetxean. Hitzordua 17:00etan ipini dute; sarrera, doan. Korrikaren abestiaz girotuko dute ikuskizuna. ◀

## Euskarazko ipuinak, Mari Olasegaz

Otsailaren 16an, eguena, Ipuinaren Ordua egingo dute osteraren ere, Gobelako haur-liburutegian, 18:00etatik aurrera. Mari Olasen euskarazko ipuinakaz gozatzeko aukera edukiko dute 5 eta 9 urte arteko umeek; sarrera, doan. ◀

## Sendabelar-tailerra, Zapatuetan Olgetanen

Udaleko Euskara Zerbitzuak ume zein aita-amentzako jarduerak egingo du, otsailaren 18an, 17:00etik aurrera. Sendabelar-tailerra egongo da, Erandiogoi-koko gizarte-etxean, otsailaren 13ra arte egongo da izena emateko aukera. ◀

## DEIALDIAK

OTSAILAK 15, EGUAZTENA

**Andra Mariko Jai Batzordearen herri-bilera, irekia**

**19:00 | Andra Mariko kiroldegia | Getxo**  
Herriarrak parte hartzera gonbidatu dituzte, jaiak denon artean antolatzeko.

## ERAKUSKETAK

OTSAILAREN 3TIK 26RA ARTE

**Euskal Akua-relarien Elkarteak**

**Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo**  
Astelehenerdik domekara. Sarrera: doan.

Inola enakumeen elkarteak antolatuta, 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

OTSAILAK 11, ZAPATUA

**Axel, heroi txikia**

**17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa**  
Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

**Orm, en el reino de las nieves**

**18:00 | Kultur etxea | Urduliz**  
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro. .

OTSAILAK 14, MARTITZENA

**Que Dios nos perdona**

**20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa**  
Adinduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.



Biolina eta bere aldaera denak jotzen dituzte. © CELTIC FIDDLE FESTIVAL


## Folkeko biolin-jole onenak, Sopelan

Kevin Burke irlandarrak, Christian Lemaître britainiarrak eta Charlie McKerron eskoziarrak osatzen dute The Celtic Fiddle Festival taldea; munduko folkeko biolin-jole onenen artean daudela diote adituek. Nicolas Quemener (Bre-tainia) gitarra-jotzaileagaz atera ohi dira oholtza gainera. ◀

**Noiz:** Otsailak 10, barikua.  
**Ordua:** 20:00  
**Non:** Kurtzio kultur etxea.  
**Sarrera:** 10 euro.

## Euskara Irakurle Klubak Mark Haddon idazlea berbabide izango du

Otsailaren 15ean, eguaztena, batuko da berriro Euskara Irakurle Kluba. Orain-go honetan, Mark Haddon (Ingalaterra, 1962) britainiarrak 2003an idatzitako *Txakurari gauean gertatutako istripu bitxia* eleberraren inguruan berba egingo dute; Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) euskarara itzuli zuen, 2008an. Saioa 19:30ean izango da, Kultur Leioako lehenengo solairuko hemerrotekan; doan. ◀



## Neguko Garranblada otsailaren 18an izango da, Utopianen

Otsailaren 18an, zapatuan, jai-giroko bilera egingo du Garrobik, Utopian sorkuntza-gunean; Artisten harrobiak 20:00etan ipini du hitzordua. «Kontaiguzuz laburki zer zabaldu nahi duzun. Irudiak proiektatuz, musikarekin, performance bat eginetz», azaldu dute. Aurretik izena eman daiteke. ◀

izen-ematea: info@garrobi.com

**1** Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

**1** Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

**2** www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.





*Rastros de sándalo* filma ikusi ahal izango da gaur, Sopelan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatu du saioa.

## Ekitaldiak

### Otsailak 9, eguna

**18:00** *Rastros de sándalo* filma, gaztelaniaz, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Doan. Antolatzailea: Itzartu emakumeen elkartea.

### Otsailak 10, barikua

**19:00** *Joy* filma, gaztelaniaz, Urdulizko kultur etxean. Doan. Antolatzailea: Inola emakumeen elkartea.

### Otsailak 11, zapatua

**20:00** *Todas somos iguales* (A Trompicones Teatro) antzezlan, gaztelaniaz, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Sarrera: 2 euro.

### Otsailak 16, eguna

**18:00** *Crecimiento personal y liderazgo* berbaldia, gaztelaniaz, Itzartu elkartearen egoitzan (Landa doktorea, 3). Sarrera, doan.

### Otsailak 23, eguna

**18:00** *Joy* filma, gaztelaniaz, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Doan. Antolatzailea: Itzartu emakumeen elkartea.

# Emakumeen begi-ahoetatik

**Genero ikuspegiko zinema**, antzerkia eta berbaldiak egongo dira egun hauetan, hainbat herritan.

**H**ilabetero legez, Sopelako Itzartu emakumeen elkarteak pelikula biren proiektioak antolatu ditu, Kurtzio kultur etxean. Hala, gaur, otsailaren 9an, *Rastros de sándalo* filma ikusgai

egongo da. Hilaren 23an, berriz, *Joy* filma eskainiko dute. Emanaldi biak 18:00etan izango dira, gaztelaniaz; sarrera, doan. Hain zuzen ere, aipatutako azken pelikula hori, bariku honetan, otsailaren 10ean, ikusteko aukera

egongo da, 19:00etan, Urdulizko kultur etxean. Urtero egiten duten Genero Ikuspegiko Zinema zikloaren barruan antolatu dute ikustaldia Inola elkarte-ko emakumeek. Sarrera, doan.

Bestalde, zapatu honetan, otsailaren 11n, *Todas somos iguales* antzezlan eskainiko du A Trompicones Teatro taldeak, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Hitzordua 20:00etan

ipini dute, eta sarrerak 2 euroan egongo dira salmentan. Antzezlan gaztelaniaz izango da, igarri daitekeenez.

Azkenik, berbaldia eskainiko du Olga del Castillo antropologoak, otsailaren 16an, eguenagaz, 18:00etan, Sopelako Itzartu emakumeen elkartearen egoitzan, Landa doktorea kaleko 3. zenbakian. *Crecimiento personal y liderazgo* izenburua dauka hitzaldiak. ◀

Hitza emanda



## Kupido

*Laranja erdiena  
nork du merezia?  
Tamalez hala dago  
mundua hezia.  
Zergatik jaurti baina  
Kupidok gezia,  
norbera baldin bada  
nahiko, berezia?*



**UNAI MENDIBURU VALOR**  
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAk proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Algortako La Ola jatetxean jokatu dute Abra Saria; afarian izena eman daiteke hilaren 14ra arte

**E**uskal Herriko bertsolari gazteen-etzako Abra Saria otsailaren 17an jokatu dute, barikuagaz, Algortako La Ola jatetxean. 16. edizioa izango da; izan ere, 2011n abiatutako ohiturari jarraituz, aurten ere bertso-afari formatuan abestuko dute aurtengo bertsolariek. Etxeko ordezkaria Unai Mendiburu algortarra izango da. Beragaz batera, Ane Beloki legazpiarra, Joanes Illarregi leitzarra, Maider Arregi oñatiarra, Peru Abarrategi aramaiarra eta Txaber Altube abadiñoarrak izango dira. Bestalde, Martin Armendi, Nerea Bruño eta Joseba Santxo epaileek erabakiko dute txapela nork jantziko duen. Gai-jartzailea Beñat Vidal leioaztarra izango da. ALBEk zehaztu duenez, «aurretik afaria eta, horren ostean, saria» izango da. Afarian izena emateko azken eguna otsailaren 14a izango da; 15 euro ordaindu beharko dute afaldu gura dutenek. ◀

izen-ematea: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com) / 605 704 385

## Grezia eta Euskal Herria, gastronomiak lotuta

**O**tsailaren 14an, martitzenean, Julen Nafarrate kazetari berangoztarra gonbidatu du Egi-zu euskara-taldeak, uda honetan bizi izandakoak kontatu ditzan, diapositiben bitartez. Hiru saio egongo dira, Algortako kultur etxean: 09:15ean, 11:00etan eta 20:00etan; sarrera, doan. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Korrika Kulturalaren barruan antolatutako jardueretako bat da. Abentura berezia bizi izan zuen Nafarratek; Greziatik eta Euskal Herrirainoko bidea bizikletaz egin zuen, geldialdi bakoitzean, bertokoen sukalde barruraino sartuz. *Izeko Mertxeren osagaien bila* izenburua ipini zion proiektuari; izan ere, bere izeba Mertxeren moduko emakumeak aurkitu gura zituen bidaiari gazteak. Horietako bakoitzak osagai bat eman zion, Nafarratek bizikletan sartu, eta bueltan izekok menua osatu zuen, osagai denakaz. Horren bidez, «emakume guztien arteko lotura» egin zuen emakume



Bidaia luzea egin zuen Nafarratek.

berangoztarrak. Bere ilobak dioenez, «izeko Mertxek prestatzen dituenak su txikian egindako errezetak dira, mimo handiz, txiri-txiri. Maitasuna adierazteko beste modu bat da: osagai bat lapikoan sartzen duen aldiro lastan bat egiteko bere modua da». Bere berbetan, «beste garai bateko hizkuntza da, beste garai bateko erritmoa». Beren-beregi, horren garrantzia azpimarratu gura zuen kazetariak, *Izeko Mertxeren osagaien bila* egitasmoaren bitartez, Donostia 2016 programaren barrukoan. ◀



# «Euskara landu gura dugu umeeekin, ipuinen, kanten eta jolasen bitartez»

## Ustruku izeneko taldea

abiatu du Sendi egitasmoak; helduak eta umeak elkartuz, ahozko tradizioa konpartitu gura dute.

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**  
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

**U**rtarrilaren 27an batu zen lehenengo biderrez Ustruku taldea, Algortako kultur etxean. Hilabete bakoitzaren azkeneko barikuan ipini dute hitzordua; euskarazko ipuinak, aho-korapiloak, poesiak, kondairak eta kantak konpartitzea euren denen asmoa. Isabel Atxa eta Leire Saez taldeko kideek esan dutenez, denok gaude gonbidatuta.

### Zelan edo zer dela eta otu zitzaizuen Ustruku taldea sortzea?

**Isabel Atxa Leturia:** Ni hezkuntza-munduan ibili izan naiz; besteak beste, ikastolara etortzen ziren ume berrien gurasoei elkarrizketak egiten nizkien. Umeekin harremanak izatean, aita-amek errekurtsoren falta izugarria daukatela nabaritu izan dut aspaldidanik; gaztelaniara jotzen dute askok eta askok.

Oso gogoan daukat nire amama; gure etxearen ondoan bizi zen. Familia handia elkartzen ginen bertan, eta beti umeren bat egoten zenez, kantak edo jolasak egiten genituen txikiekin. Kontuak horrela, ume baten aurrean zerbait egiteko gauza naizela uste dut. Guraso berriengan horren falta ikusten dut orain.

### Zein da Ustruku taldearen helburua?

**I.A.:** Euskararen transmisioa bermatzea da helburua. Horrekin ez dut esan nahi gauza berriei atek itxi behar dizkiegunik; baina, lehengoa ere kontuan hartu behar dugu. Ahozko euskara landu gura dugu umeeekin, ipuinen, abestien, hitz-jolasen edo asmakizunen bidez.

**Leire Saez Gonzalez:** Ahozko hizkuntzaren bitartez gozatzea da helburua, eta elkarrekin eta elkarrengandik ikastea ere bai. Ez dago presiorik, ez dago presarik eta bertan parte hartzeko ez da beste munduko ezagutzarik behar. Etxean, seme-alabekin edo ilobekin, eta gustuko duzulako, hitz-jolasak, olerkiak edo dena delakoa konpartitzeko unea da; eta entzumena lantzekoa ere bai.



Otsailaren 24an egingo duten saioa buruan daukate Isabel Atxak, Leire Saezek eta Ustruku taldeko gainontzeko kideek.

### Nondik dator 'Ustruku' berba?

**L.S.:** Uribe Kostako euskararen «ortzadar» esan nahi du. Niretzat aniztasunaren sinboloetako bat da; eta aniztasuna beti da aberastasuna.

### Zelan funtzionatzen du Ustrukuk?

**L.S.:** Momentuz, lau saio planteatu ditugu; ikusiko dugu aurrerantzean zer egiten dugun. Urtarrilean hasi ginen; apirilera bitartean, hilabete bakoitzaren azken ostiralean batuko gara, 18:00etatik 19:00etara, Algortako Villamonteko kultur etxean. Hala, saiora hurbiltzen den heldu bakoitzak bost minutuko zeozer prestatuta eraman ohi du; ipuina paperezko euskarrian aurkezten dute batzuek. Beste batzuetan, umeak berak helduarekin batera prestatzen du eta txikiak ere parte hartzen du aurkezpenean. Denon artean osatzen dugu kontakizuna; ez dago egitura itxirik.

### Kontularien kluba baino zeozer gehiago da, ezta?

**I.A.:** Nahiko nuke hori baino gehiago izatea. Momentuz, arrisku hori dago; baina, lehenengo saioa baino ez dugu egin. Beste egunean, agian, gehienbat ipuina erabili zen... Egitasmoari denboratxo bat eman behar diogu.

**L.S.:** Gaur egun, zoritxarrez, gero eta galduago dago ahozkoatasuna; gaur egungo haur txikien gurasoek asko-

tan ez daukate bitartekorik. Horregatik, sarritan, paperezko euskarria edo lagundutako kontaketa jotzen dute. Gure helburuen artean dago elkarren artean ikastea eta, hurrengo saiorako, bakoitzak zeozer lantzeko konpromisoa hartzea. Adibidez, elkarri esaten diogu: «hurrengorako saiatuko gara

*“ Talde irekia da; o urtetik 120 urtera arteko pertsonen parte har dezakete ”*

denok txiste edo olerki bat ekartzen». Ahozkoatasun hori lortzeko pausoak emateko modu bat da. Hala ere, ez da derrigorrezkoa izaten.

**I.A.:** Gainera, taldea oso irekia da; hurrengo deialdian nortzuk egongo garen edo egongo diren ez dakigu zehatz-mehatz; ez dago zuzendaritza edo gidaritza bat. Gogo batek elkartu gaitu, eta horretan gabiltza.

### Zeinek parte har dezake Ustrukun?

**I.A.:** Gurasoek eta umeek, eta haurren inguruan dabilzanek: zaintzaileek, aitita-amamek...

**L.S.:** Nik esango nuke o urtetik 120 urtera arteko pertsonen parte har dezaketela. Aita-ama, aitita-amama, osa-

ba-izeko, gazte, lagun... Guztiz irekia da taldea; gainera, umeeekin etor zaitezke edo ume barik.

### Gaur egun, zer-zelako garrantzia dute aitite-amamek gure seme-alaben heziketan?

**I.A.:** Kar, kar, kar. Ni amama legeztan naiz Ustrukura.

**L.S.:** Nire ustez, garrantzi handia daukate gure seme-alaben heziketan.

**I.A.:** Nik aspaldi irakurri nuen Txinako lurraldetxo batzuetan amamak joaten zirela haurtzaindegietara, euren hizkuntza eta tradizioak irakasteko; izan ere, mintzaira ezberdina zeukaten leku horietan. Tarteka, ipuinak eta tradiziozko gauzak kontatzen zizkieten. Oso polita dela uste dut.

Gaur egun, zaintzaile-lana egin behar izaten dugu askotan; horrela koetan ez dago aita-amek umeeekin egiten dituzten gauzekin alde handirik: umeari jaten eman, lotan jarri... Baina, nik diodan bezala, bisitari-moduan joaten bagara, jolaserako tarte handiagoa dago. Oso aberasgarriak dira une horiek. Bestalde, bizi dugun egoerarekin, aitita-amamen zaintzalan hori arrunt bilakatu da. Diru-esutasunak egoten dira eta, ondorioz, seme-alabak lanera joan behar izaten dute. Hala ere, ez du ezertan batak bestearen kontra joan beharrik. ◀



## «Indar-metaketa berri bat beharrezkoa da, ezkerretik»

**Joxe Elorrieta Aurrekoetxeak** (Loiu, 1951) bere bigarren saiakera aurkeztu du: *Una mirada sindical contracorriente. Clase, territorio y nuevas alianzas* (Icaria, 2016). ELAren idazkari nagusi ohiak neoliberalismoa borrokatzeko indar-metaketa berri bat proposatu du, 1990eko hamarkadan LABegaz egin legez. Nazio-prozesu soberanista abiatzeko baliagarria izatea gura luke.



TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

**Zertan datza *Una mirada sindical contracorriente. Clase, territorio y nuevas alianzas* liburua?**

Azpimarratu nahi izan ditut hiru ideia. Lehenengoa neoliberalismoari kritika bat da, batez ere bere ondorioengatik: haustura sozial oso handia, errentabanaketan ikusten da noraino heldu den. Neoliberalismoak lortu du hegemonia, botere politikoagaz aliantza bat eginez; eta ez bakarrik eskumagaz, sozialdemokraziagaz ere bai. Thatcherrek berak esaten zuen bere lorpen handiena zela sozialdemokraziak euren programa onartu izana. Oso garrantzitsua da plan sistematiko bat izan dutela ahultzeko indar alternatiiboak edo euren aurka egon daitezkeenak; sindikalismoaren porrota lortzean zentratu dira. Bigarren ideia hau da: sindikalismoaren gehiengoak Stockholmeko sindromea dauka. Onartu egin dugu neoliberalismoa, etsipenez, alternatibarik ez dagoela sinetsita. Makurtu egin da eta ez du estrategiarik berritu.

**Elkarrizketa sozialerako sindikalismoa dela diozu.**

Elkarrizketa soziala erdian ipintzen duelako, zonbiak legez. Galduta dago, ez da ausartzen alternatiba aldarrikatzaile bat egiten, ahultasunagatik eta ideologikoki ez duelako ikusten neoliberalismoaren hegemonia gainditu behar duenik. Hirugarren ideia bertoko egoerari lotuta dago, nazio-prozesuaren ikuspuntutik.

**ELAren idazkari nagusia izan zinen 20 urtez. Garai hartan zertan asmatu zenuten eta zertan ez?**

Trantsizioaren hasieran, gure apustuak adar bi izan

zituena. Batetik, planteamendu sindikal instituzionala egin genuen. Elkarrizketa sozialarena ez, guk ez genuen inoiz onartu horrelakorik. Baina bai erabaki genuen enpresariak azkordio batzuk egitea, negoziazio kolektiboa sendotzeko eta lan-harremanen eredu bat finkatzeko, beharrezkoak zirelakoan metodologia bat adostea, gutxieneko prozedura eta arau

“**Aliantzak egin behar ditugu galtzaile denakaz, jendartean neoliberalismoaren kontra mugitzen diren denakaz**”

batzuk ezartzea, eta abar. Apustu politikoa Estatutua izan zen. Lehenengo apustuan ez genuen ñabardurarik egin; bigarrenean, kontuan hartu genuen fase hartako indar-korrelazioa eta, gure ikuspegitik, posible zen, prozesu estatutista batetik hasita, beste maila batera heltzea. Denbora joanda, neoliberalismoa indartsu heldu zen hona, 1990eko hamarkadan. Garai hartan konturatu ginen gure apustu instituzionala, enpresariakaz gutxieneko batzuk ezartzearen eta hitzarmen-kolektiboak garatzearen bidea, moztuta zegoela. Sindikatu batek edo errealtatean bizi den eta jende asko atzean duen edozein eragilek denbo-

ra nahiko behar du konturatu, diagnostikoa egin eta aldaketa martxan ipini arte; ez da posible «hori ikusi dut, hori gaizki dago eta hori beste modu batera egin behar dugu, bihartik hasita». Autokritika gisa, beti onartu behar dugu honako zalantza: ea aldaketa denbora laburragoan egitea posiblea izan zitekeen. Estatutuaren arloan ere, antzera pentsatzen dut. 1990eko hamarkadaren hasieran, 1992an edo 1993an, LABegaz harremanetan hasi ginen. Prozesu hori guretzat oso interesgarria eta aberasgarria izan zen, ikuspegia apur bat zabaltzeko, arlo sindikalean eta politikoan. Estatutuaren egoera dialektikoki eta zentzu kritikoz ikusten lagundu zigun. Gainera, argi geratu zen zentralismoa ugazaba zela Estatutuaren garapena administratzean. Hala, 1997. urtean, ELAren Kongresuan egin genuen aldaketa eta ondoren Gernikan adierazi genuen publikoki gure ildo berria: Estatutua hilda dagoela eta autodeterminazio-prozesu batera joateko beharra dagoela. Hor ere berdina esan daiteke: «denbora asko behar izan duzue hori erabakitzeko».

**LABekiko harreman estua izan zenuten. Gaur egun ere, neoliberalismoa borrokatzeko aipatu duzu elkarlan hori berreraikitzea beharrezkoa dela.**

Bai. Garai hartan beharrezkoa edo behintzat oso komenigarria izan zen. Baina fase honetan derrigorrezkoa bilakatu da. Zergatik? Euskal Herrian gehiengo sindikala LABek eta ELAk osatzen dutelako, erreibindikatzailerik delako eta nazio-prozesuagaz oso konprometuta dagoelako. European ez dago horrelako eredu





sindikalik; Euskal Herrian badaukagu. Langile-klase eta abertzale gisa, indar-metaketa berri baten beharra daukagu, eta horrela defendatzen dut liburuan. Behar dugu nazio-prozesua berpizteko eta norabide zehatz bat emateko; nire ikuspegitik biak lotuta daude. Hor tranpa egin ohi da: «zer da lehenengo: nazioa ala gizarte eredua?». Hori ezin da hala galdetu; gehiengo bat lortu gura badugu eta nazio-ereduari planteamendu progresista bat eman nahi badiogu, lotu egin behar ditugu bata eta bestea. Horregatik, liburuan idatzi dut gehiengo sindikalaren konbergentzia estrategikoa oso erabakigarria izan litekeela indar-metaketa hori lortzeko, eta beste erritmo bat emateko nazio-prozesuari eta borroka sindikalari ere bai.

#### Horretarako zer-zelako traba ikusten dituzu?

Mota biko trabak daude: lehenengoa da LAB eta ELA kultura ezberdinetako erakundeak garela, tradizio ezberdinak ditugula. Noski, gauza askotan puntu komunak ditugu eta 1990eko hamarkadako esperientzia hor dago. Baina normala da azterketa ezberdina egitea, arlo sindikalean, sozialean eta politikoan. Hori onartzen eta gainditzeko ahalegindu behar dugu; errealitatea hain gordina izateak erraz dezake. Sindikalismoaren indar-metaketa lortzeko beste oztopoa da derrigorrezkoa dela praktika autonomo bat edukitzea. Batzuek diote hori LAB kritikatzeko dela. Ez da hala, nik egoera zelan ikusten dudana baino ez dut esan. LAB mugimendu baten barruan dago; hori errespetagarria da eta ez da inolako arazoa. Mugimendu horren barruan, borroka instituzionalaren eta borroka sozialaren arteko dialektika zelan ematen den izan daiteke traba. Argi esateko: hauteskundeei begirako politikak eta bere jokoak (gehiengoak nola osatu parlamentuan, udaletxeetan, foru aldundietan...) ezin dira izan nagusi dialektika horretan; eta borroka soziala ezin da ipini estrategia horien men-

pean. Borroka mota biak beharrezkoak dira, baina sozialak bere autonomia izan behar du. Planteamendu estrategiko batetik, borroka sozialak autonomia izan behar du. Mugimendu horretan ezartzeke dute borroka bien arteko menpekotasun eza.

**“ Euzko Alderdi Jeltzalea ez dago prozesu soberanista baten alde, eta argitu beharko Euskal Herria Bildu ba ote dagoen ”**

#### Bada beharrezkoa den beste osagairik prozesuan?

Zorionez, gehiengo sindikalak ez du borrokatzen bakarrik enpresa-mailan. LABek eta ELAk, batzuetan batera eta beste batzuetan bakoitzak bere kabuz, praktika errebindikatzaila egiten dugu lurraldetasunean eta arlo sozialean. Hor sindikatuak aliantzak

osatu behar ditu beste batzuek, indar sozialak. Adibide batzuk oso garbi daude: emakumeen mugimendua eta ekologiaren ingurukoak. Ekologiak gero eta garrantzi handiagoa dauka neoliberalismoaren kontrako borrokan. Ekonomia iraunkorra defendatu eta eredu kontsumistaren aurka daudenak ere aliatuak izan daitezke. Faktore asko daude. Nik esan ohi dut aliantzak egin behar ditugula galtzaile denakaz, jendartean neoliberalismoaren kontra mugitzen diren denakaz. Prozesuak borroka politiko batera eroango gaitu, nahiz eta Urkulluk berak oso argi esan duen berak ez duela onartzen sindikatu batek borroka soziala eta borroka politikoa egitea, lan-espazioan bakarrik gelditu behar duela. Sindikalismoak historian inoiz ez du eduki halako mugarik; sindikatua eragile politiko da, letra handiakaz gainera: jendartea aldatzeko eta nazio-prozesua aldatzeko, besteak beste. Ez du alderdikoia edo alderdi baten menpekota izan behar, baina hori beste kontu bat da...

#### Aipatu izan duzu prozesu soberanista abiatzeko ezkerreko eta abertzaleakaz elkarlana beharrezkoa dela, oster, baztertu duzu EAJ hasieran egotea.

Ez, EAJk baztertzen du bere burua. Prozesua hobea litzateke EAJgaz? Duda barik! Hipotesi horretan sartu beharra dago EAJren politika neoliberalen arabera nola uztar daitekeen prozesu bat, eta ez da erraza. Hori Katalunian ere ikusten da: nola egon den aurrekontuak arazo serio bat, eta ez da lehenengoa izan. Zergatik? Bada CUPek aurrekontuak kritikoki ikusten zituelako. Alderdi neoliberal batek dialektika hori beti hor egongo da. Euskal Herriko kasuan, EAJk oso argi esan du euren prozesua ez dela soberanista eta hori eskertu egin behar zaio EAJri, ez dago engainurik. Bere logika da neoestatutista, bai edukietan, esku-duntzak hobetu, gehiago eduki eta berme juridiko zabalagoagaz, eta beti Madrilgo Gobernuagaz adostuta. Ez bada adosten, ez dago ezer. Ez dago B planik, eta oso garbi esaten dute. Inork ez du EAJ baztertu, eurak baztertu dira; bilatzen dituen aliantzetan ikusten da: PSOEgaz; eta gaur egun PPrekiko hipotesia pil-pilean dago. Beti dabil hauteskundearen aritmetikaren arabera: «behar badute», «posible bada», «Kontzertuaren desblokeoa», «trena dela», «bestea dela»... Beti daukate PSOErekiko eta PPrekiko hurbiltasun estrategikoa. Hori hala izanda, esan egin behar dugu. Politikan problemarik handiena da ikusten dena ez esatea. EAJk argi baino garbiago esan du bere aliantzak, gobernuen osaketa, instituzio-mailakoak, ez doazela bat prozesu soberanistagaz eta bai prozesu neoestatutista batek. Emaizta argia da: «EAJ ez dago».

#### Eta EH Bildu, badago?

Hori da argitu beharrezkoa. Nahiz eta EAJ hala egon, EH Bilduk, hauteskundearen aurretik eta ostean, esan du posiblea dela herri-akordio historiko batzuetara heltzea EAJgaz. Arabako aurrekontuak ere bozkatu dituzte. Ematen du, Maltzagara heltzeko koartada erabiliz, indar-metaketa planteamendu instituzionalagaz edo hauteskundearen arabera ikusten duela, eta hori argitzeko beharra dago, kontuan hartuta EAJ nora doan, eta zein politika neoliberal duen. Liburuan planteatzen dut badauzkagula, zorionez, arlo politikoan, sozialean eta sindikalean ordezkari-tza oso garrantzitsua duten eragileak, bakoitza bere errealitateagaz, eta horiekaz denekaz egin behar dela indar-metaketa berri bat, ezkerretik, prozesu osoa bultzatzeko. ◀



**info+: basqueteam.eus**



# Euskadi, lehenengo mailara



Getxo Rugby Taldeko kideak eta Cristina Guntin Eibar taldeko jokalaria, Zaragozan. © GRT

**D**atorren denboraldian, lehenengo mailako Txapelketa Autonomikoan jokatu du Euskadiko emakumeen errugbi-selekzioak. Euskal herritarrek, bigarren mailako txapelkunak direnak, igotzeko eskubidea lortu zuten urtarileko azken domekan, Zaragozan, Valentziari irabazi eta gero (24-7). Valentziarrak azkenak izan ziren lehen mailako azken txapelketan. Garaipenean, Getxo Rugby taldeko zazpi kidek parte hartu zuten: Saioa Jaurena, Lucía Masa, Garazi Uriarte, Nerea Agirre, Arantza Olabarria, Idoia Olabarrieta eta Maider Gutiérrez. Valentziarrek partidako lehenengo entseguia lortu zuten, baina euskaldunek markagai-

luari buelta eman zioten, Irene Reyesen (2), Ana Isabel Sospedraren eta Maitane Salinasen entseguiei zein Maider Martínezen eta Amaia Mayoren transformazioei esker. José Miguel Galdos euskal selekzioaren managerraren ustez, «Euskadi hobeia izan da. Denbora luzeagoan izan dugu baloia, baina aurretik jokatzen tematu gara, irtenbidea atzean zegoenean. Entsegu garbiak huts egin ditugu azken pasean». Euskadiko taldean hasieratik zela iratu ziren Lucía Masa, Garazi Uriarte, Saioa Jaurena, Arantza Olabarria eta Nerea Agirre. Hirugarren lerroan, Idoia Olabarrietak ordezkatu zuen Agirre, 41. minutuan. Maider Gutiérrez izan zen azkena jokoan sartzen. ◀

## Pla eta Barrutieta, Australiako zazpikoan

**G**etxo Rugby Taldeko jokalariek diren Bàrbara Pla eta Uribarri Barrutieta lehiatu dira Munduko Emakumezkoen Zazpiko Errugbi Txapelketako bigarren proban, Sidney, Australian. Espainiako selekzioagaz parte hartu zuten biek. Postu bat galdu dute nazioarteko sailkapenean, hamargarrenetik hamaikagarrera jaitsi dira, pasa den aste-akabuan izandako emaitzen ostean. Izan ere, taldekako fasean, partida denak galdu egin zituzten: 19-10, Ingalaterraren aurka; 24-5, Errusiaren kontra; eta 5-20 Estatu Batuakaz izandako norgehiagokan. Hala ere, emaitzarik one-

na izan ziren Getxoko jokalariek parte hartu zuen konbinatuarenak beste talde bietako laugarren lekuan sailkatutakoak alderatuta. Horrek Brontzeko Kopa lortzeko bidean borrokatzeko aukera eman zion Eusebio Quevedok entrenatutako taldeari. Ostera, zazpiko espainiarrak partida hori ere galdu egin zuen, 7-10 nagusitu zitzaion Brasil. Azken partidari, Plak eta Barrutieta irabazi zioten Papua Ginea Berria gonbidatutako selekzioari, 17-31. Gainera, Plak entseguia egin zuen lehenengo minutuan. Munduko hurrengo proba Las Vegasen (AEB) izango da, martxoaren 3an eta 4an. ◀



Plak Sidneyko partida denak jokatu zituen; azkeneko hirurak, titular gisa. © FER

## Ager Aketxe Cadizen entrenatzen hasi da

**A**ger Aketxe erdilari itzubaltzeta-rra Cadiz futbol-taldearen saio teknikoetara batu zen urtarri-laren azkeneko egunean. Mirandés klubaren aurkako partida prestatzen jardun zuen talde horiak, 2-1 irabazi zuten domekan. Halere, Álvaro Cervera entrenatzaileak ez zuen Aketxe zela iratu. Izan ere, Athleticen Cadizi jokalaria utzi aurretik, zortzi hilabeteko lesioa jasan zuen itzubaltzetarrek. Ager Aketxek azaldu duenez, bere osasuna eta sasoi berreskuratu ditu: «oso ondo nago, erabat osatuta eta hainbat entrenamendu-saio osorik beteta». Erdilariak dioenez, Athleticen



© CADIZ F. K.

hainbat eskaera jaso zituen bera uzteko, baina berari arreta eman zion bararra Cadizena izan zen: «hona orain dela nahikotxo etortzen hasi nintzen eta hasieratik oso argi izan nuen nora joan gura nuen». ◀

## Entrenatzaile berriak Plentzian eta Ugeraga Bn

**P**lentzia kirol-taldeak Oskar Bruno fitxatu du lehenengo taldea entrena dezan, Bizkaiko futbol-ligako 1. go mailako 2. multzoan. Dosa Salesianos taldeko koordinatzailea izan da Bruno; aurretik, Getxo Kirolak erakundean oinarri-futbolaren koordinatzailea eta Leioako Lagun Arteak futbol-eskolaren zuzendaria ere izan da. Plentziako orain arteko teknikoakaz lan egingo du Brunok. Bestalde, Txaber Ribero ez da daborduko Ugeragako bigarren taldeko entrenatzailea, zuzendaritzak hala erabakita; eta Txema Carranza fitxatu du. Sailkapeneko azkena da Ugeraga B; Plentzia eta Berango ditu aurretik. ◀

## Oztopoen zaldi-jauzien trebatze-saioak Faduran

**A**dingabekoentzako teknifikazio-plangintza abian ipini du Euskal Hipika Federazioak, oztopoen zaldi-jauziak hobetzeko. Saioak otsailaren 11n hasiko dira, Faduran, baina horietan izena emateko azkeneko eguna hilaren 9a da. Entrenamenduak 16 urtez azpiko neska-mutlei begirakoak dira; dena, 15 leku daude; egindako merituen arabera banatuko dituztenak. Halere, behin aukeratuta, eskatutako ahaleginak egin beharko dituzte, programan parte hartzen jarraitzeko. Federazioak hartuko ditu bere gain egongo diren gastu guztiak. ◀

izen-ematea: hipica@fvh.org





Talde-lanean

**JON  
LOPEZ SAEZ**  
Entrenatzailea eta kazetaria

## Ikusgarriak ikusezin bihurtzen tematu gara

**E**makumeaz eta kirolaz aritu ginen aurreko batean Bizkaialde Fundazioak antolatutako ekitaldi batean. Agertokian izan nintzen emakume kirolari askoren artean, nire ikuspuntua emateko hainbat eta hainbat urtez emakumeen taldeak entrenatu ostean.

Askotan parte hartu izan dut emakumea eta kirola uztartzen dituzten solasaldietan. Hamaika berba egin dugu horren inguruan eta hizketaldiak hizketaldi, ez da erreza emakumeen kirolari buruzko diagnostikoa egitea. Eta jakina, diagnostikorik ezean, gaitz daukagu irtenbidea aurkitzea.

Emakumeen kirolak azken urteotan nabarmen egin du aurrera. Horretan, oro har, ados gaude ia guztiok. Gero eta gehiago dira maila altuetan ditugun taldeak (Bizkaialde Fundazioa erdiak baino gehiago, emakumeen taldeak dira) eta gero eta gehiago dira agertu zaizkigun emakume kirolariak.

Arazoa, ordea, ikusgarritasunean dugu. Badirudi gizarteak, hedabideek eta kirolzaleok emakume kirolarien balentriak, lanak eta emaitzak ezkutatu egiten ditugula. Ez da irudipen hutsa tamalez, datuek argi adierazten baitigute gure hedabideek oso portzentaia txikian agertzen dizkigutela gure emakumeen albisteak. Zergatik jarraitzen dugu gure emakumeen jarduna gutxien?

Aurreko galderaren erantzuna ez dugu aurkituko ez bada gizarteari bere osotasunean begiratzen. Kirola gizartearen erakuslehoetako bat baino ez da. Eta gure gizarteak matxista eta gizonek egina eta eraikia izaten jarraitzen du.

Kirolean eta hedabideetan murgilduta gabiltzanok, baina, badugu zer egiterik. Ikus gaitzaitela/zaitzatetela da erronka edo bestela gure buruari galdetu: «noiz arte jarrai dezakegu ikusezin bihurtzen ikusgarria dena?». ◀



Leioaztarrek osatuko dute selekzioaren bizkarrezurra. © LEIOA WATERPOLO

## Portugalera!

**Leioako sei waterpolo-jokalarik** aurre egingo diote Portugalgo selekzioari datorren martxoaren 18an.

**H**ego Euskal Herriko waterpolo-selekzioak Portugalgo nazio-taldearen kontra jokatu du datorren martxoaren 18an, Oporton. Euskal Selekzioa osatuko duten jokalarietatik sei Leioa Igeriketa Taldekoak izango dira: Vanesa Freire, Leire Sarasola, Ane eta Marta Jaime, Ane García eta Uxue Hernández. Jon López eta Imanol Maiza Leioako eta 980zko teknikariek zuzenduko dute selekzioa. Talde lehiakor bilatu dute, gaztez osatutakoa eta beterrano batzuek sendotua. Euskadiko Igeriketa Federazioak (EIF) adierazi duenez, «emakumeen Euskal Selekzioaren lehen agerpenetik 15 urtera, Euskal

Herria eszenatokira itzuli da. Gainera, emakumeen waterpoloak garai bikainean dagoen momentuan egingo du, osasun desiragarrian eta etengabeko hazkunderan». Portugal 2018ko Europako txapelketan pentsatzen dabil daborduko; Bartzelonan egingo da. Euskal teknikoen iritziz, arerio hori izateak ekarri du «gure waterpoloak beste nazio baten kontra kalibratzeko aukera perfektua». Azken kontu logistikoak lotzeko daude, baina EIFk ziurtzat jo du Euskal Herriko selekzioak Portugalen kontra jokatu baino lehen Fluvial taldeagaz izango duela lagunarteko partida. Fluvialek Txapelaldunaren Ligaren aurreko fasea jokatu du orain dela gutxi. ◀

## Raspasek lau domina lortu ditu Galizian

**R**aspas arraun-elkarteak garaienez betetako aste-akabua izan zuen urtarilaren amaieran, Castrelo de Miñon eta Ribadavian (Ourense, Galizia); 4 domina irabazi zituzten aulki mugikorrek distantzia luzeko eta arraun-ergometroko Espainiako txapelketetan, urrezko bi eta zilarrezko beste horrenbeste. Denera, Raspaseko eta Getxo arraun-taldeko 15 arraunlarik parte hartu zuten Espainiako txapelketan. Distantzia Luzeko (6.000 metro) Espainiako Txapelketa Castrelo de Miñoko urtegian jokatu zen. Raspaseko Virginia Díaz Rivasek jantzi zuen txapela txapelketa absolu-

tuan, skiff modalitatean, 22,56,6 denbora eginez. Raspasen zilarrezko domina skull bikoitzeko ontziarentzat izan zen, kadete mailan, Aimar Astigarraga Lejarza eta Ander Gómez Beltrán arraunlarientzat, 21.10,1 marka eginez.

Espainiako Arraun-ergometroko Txapelketa, oster, Ribadavia herrian izan zen. Jorge Pineda Matabuena Raspaseko arraunlariak urrezko domina irabazi zuen, seniorren arraun egokitan, 03.54,4 denbora eginez (1.000 metroko distantzian). Virginia Díazek, bestalde, zilarrezko domina lortu zuen senior mailan, 07.02,5 denboran, 2.000 metroko distantzia eginez. ◀

## La Cuadri del Hospiren aldeko herri-lasterketa

**D**omekan, hilaren 12an, elkartasun-ekimen batek betekatu Astrabuduko kaleak. Bertako Extremadurako Etxeak antolatuta, herri-lasterketa batek umeen minbiziaren ikerketarako dirua batuko du, Gurutzetako ospitaleko La Cuadri del Hospi izeneko elkartearen bidez. Probak hiru formatu izango ditu: hamar kilometroko martxa, 09:00etan irtengo dena; neska-mutilen lasterketa, 100 eta 500 metro bitarteko distantzietan, 12:00etan; eta, azkenik, 12:30ean helduen lasterketa, lau kilometrokoa. Daborduko, dortsalak eros daitezke Extremadurako Etxean, 2 euroan umeenak eta 3 euroan helduenak. ◀

## Triatloien denboraldia, laster martxan

**E**uskadiko Triatloi Federazioak 40 proba antolatuko ditu datorren domeka eta irailaren azkeneko aste-akabua bitartean. Ohi legez, duatloi, triatloi, duatloi-kros, triatloi-kros eta neguko triatloiak izango dira. Zoritxarrez, aurten ez da errepikatuko Euskal Herriko Zirkuitua, eta EAEk eta Nafarroa Garaiak nork bere zirkuitua izango du. Eskualdean, otsailaren 18an egingo da Sopelako duatloia; maiatzaren 28an, Gornizko triatloia; uztailaren 1ean, Plentziako ur-duatloia, Euskadiko txapelketa izango dena; uztailaren 22an, Getxoko olinpiar triatloia; eta irailaren 16an, Erandioko triatloia. ◀



© ITXARTU

## Itxartu Krosean nagusitutakoak

**A**lgortako Itxartu Krosak 31. edizioa bete eta sasoian dagoela erakutsi du, senior eta beterranoen mailetan 712 korrikalari batu zituen eta, guztira. Emakumeen arteko arinena Bilbotri taldeko Yulia Fernández korrikalaria izan zen, 5.500 metroko ibilbideab. Gizonen artean, Sugoi Zurutuza bilbotarrak lortu zuen garaipena. ◀



# hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...  
**eta abantaila askoz goza egizu!**

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

**Non da?** lehiaketa



**SARIA**

**Shakespeareren**  
**Uda gau bateko ametsa**  
Bingen Ametzagak euskaratua



Liburua lortu gura baduzu, otsailaren 15a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 33

**Otsaileko saria**  
**Itxasgane jatetxean menua, bi lagunentzat**



© LOURDES CARDENAL

Hilabete honetako sari hau HIRUKAlagunen eta bazkideen artean zozkatuko dugu, hil amaieran, otsailaren 28an. Oraindino HIRUKAlagun ez bazara, zeren begira zaude?

**Zelan egin HIRUKAlagun?**



**Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48991 GETXO**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 3 | 2 |   |   |   |   | 1 |
| 6 |   | 5 | 9 |   |   |   |   |   |
|   | 1 |   | 6 |   | 7 | 2 |   |   |
|   | 3 |   |   |   | 9 |   | 2 |   |
| 5 |   |   |   | 6 |   |   | 3 |   |
|   |   |   |   | 1 |   |   | 9 |   |
| 2 |   | 7 |   |   |   |   | 5 |   |
|   |   |   |   |   |   | 8 |   |   |
|   | 4 | 8 |   |   |   | 3 |   |   |

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

## Soluzioa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 1 | 8 | 5 | 2 | 7 | 8 | 7 | 6 |
| 2 | 2 | 8 | 9 | 6 | 7 | 1 | 5 | 3 |
| 6 | 5 | 7 | 3 | 8 | 1 | 2 | 9 | 2 |
| 7 | 6 | 5 | 2 | 1 | 3 | 9 | 8 | 7 |
| 2 | 3 | 1 | 7 | 9 | 8 | 2 | 6 | 5 |
| 8 | 2 | 9 | 6 | 2 | 5 | 7 | 3 | 1 |
| 5 | 7 | 2 | 2 | 3 | 9 | 6 | 1 | 8 |
| 3 | 8 | 2 | 1 | 7 | 6 | 5 | 2 | 9 |
| 1 | 9 | 6 | 8 | 5 | 2 | 3 | 7 | 7 |

## + Guardiako farmaziak, hilaren 9tik 15era

### Berango

**EGUIA.** Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00.

### Erandio

**ARRUTIA.** Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BERASATEGUI.** Tartanga kalea, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Aste-akabuan, 09:00-22:00.

**DIAZ.** Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

**GASTEARENA.** Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

**TEIJELO.** J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

### Getxo

**ALZOLA.** Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

**ARISTEGUI.** Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

**EZQUERRA.** Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

**GARDE.** Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052. Astelehenean, 09:00-22:00.

**JIMÉNEZ.** Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

**LÓPEZ-LINARES.** Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**MORON.** Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SARRIA.** Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ARRIOLA.** Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BAYANO.** Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**ELLACURIA.** Andres Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ANDRACA.** Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**GALARZA.** Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

**MONASTERIO.** Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

**NUÑEZ.** Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

•**ESQUISABEL.** Algortako etorbidea, 32.

NEGURI. 944 602 529. Domekan, 09:00-13:30; eta eguaztenean, 09:00-22:00.

### Gorliz

**ABURTO.** Itsasbide, 5. 946 775 452.

Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00; eta astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ROMERO.** Itsasbide, 30. 946 128 941. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Leioa

**ANGULO.** Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Eguaztenean, 09:00-22:00.

**NARDIZ.** Mendibile kalea, 1. Leioa. 944 800 484. Barikuan, zapatuan eta martitzenean, 09:00-22:00.

**ORTEGA.** Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

**ONA.** Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SAN ANDRES.** Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

### Lemoiz

**GONZALEZ.** Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Plentzia

**ARAMBURU.** Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; eta eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Sopela

**BENITO.** Etxebarri, 19. 946 766 013. Barikuko 22:00etatik zapatuko 09:00ak arte; eta domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**DOLARA.** Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ITURBE.** Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; eta martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ERAZO.** Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ZUMÁRRAGA.** Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30.

### Urduliz

**PARAMO.** Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.





# Bilgune Feminista

## Burujabetza feministara bidean, 15 urtez



**Askotariko esparruetako emakumez** osatutako antolakundea da Euskal Herriko Bilgune Feminista, eta 15 urte beteko ditu aurten. Emakumeen jabetzaren eta burujabetzaren bidean, ekitaldi asko egingo dituzte urte osoan.

IKER RINCON MORENO

**H**amabost urte igaro dira daborduko Euskal Herriko Bilgune Feministak aurrekoengandik lekukoa hartu eta bide berriari ekin zionetik. Euskal Herri feministak bat eraikitzeke «nahi eta anbizio politikoa izugarritz» jaio zen antolakundea 2002an, Donostian. Euskal Herriko nazio-proiektu politikoa berri bat osatzeko beharri erantzun zion bilgune horren sorrerak. «Egiteko era berriak, sareak josteko era berritzaileak izan ditugu helduleku nagusi», azaldu dute emakume feministek. Bide horretan, euren jardunbide nagusiak izan dira sistema patriarkalaren «atzaparrak» agerian ipini eta aurre egitea berdintasun politikei, diskurtsoei eta praktika faltsuei, «baita emakumeon bizi-baldintzak hobetzea eta pertsonen arteko harreman eredu berriak sortzea ere».

Burujabetza feminista erdiesteko hamabost urteko borroka egin dute Euskal Herriko ehunka emakume, eta «indar feminista artikulatzen, ehuntzen eta zaintzen» jarraituko dutela argi dute. 2002an definitutako plan estrategikoa ardatz izanda lan egin dute. Halere, aitortu dute bide hori gurutzatu egin dutela etengabeko aldaketek: «Euskal Herriaren egoera sozialek, politikoei eta ekonomikoek; feminismoen bilakaerak eta eguneraketek; patriarkatuaren formak; euskal feminismoan edo feminista gisa jarduteko moduek; bizitza ereduak; militantzia ereduak; Bil-

gune Feministako militantziak eta egiteko moduek». Hortaz, Bilgune Feministaren jardunak etengabeko eguneraketa eta egokitzapena behar izan du. Horretarako, oinarri nagusi bi izan dituzte: konpromiso politikoa eta aliantzak. «Euskal Herriaren burujabetza feminista erdiesteko anbizio politikoz jaio ginen, eta, gaur egun ere, apustu hori dugu. Horretarako,

**Euskal Herriko Bilgune Feminista etengabe dago bere burua birsortzen eta birdefinitzen, modu kolektiboan beti**

indar feminista artikulatzen, ehuntzen, zaintzen jarraituko dugu; azken finean, kolektiboki borrokatzen», azaldu dute Euskal Herriko Bilgune Feministako kideek.

Bilgune Feministaren hamabosgarren urteurrena aprobetxatu gura dute antolakundearen barruan dauden erronkak mahai-gaineratzeko eta bide horretan euren konpromisoa berresteko. Ondarroan egindako VI. Topaketa Feministetan, «trantsizio feministaren» oinarriak adostu zituzten, baita etorkizuneko hiru erronka nagusi identifikatu ere. Hala,

Euskal Herriaren burujabetza feministaren inguruko eztabaida soziala sustatzea dute helburu. Horrez gainera, ondo bizitzearen kontzeptualizazioan eta praktikan sakondu gura dute, pobrezia eta prekarietate-neurriei aurre egiteko ekinbideak bazterrean utzi barik. Modu berean, burujabetza feminista erdiesteko «lidergo feminista» indartsu bat ehuntzeko beharra ikusi dute. Hartara, jakinarazi dute urteurrenaren lanketa horri guztiari lotuta dagoela.

### «Feminismoak egiten gaitu herri»

Urteurrena ospatzeagaz batera, Bilgune Feministaren proiektu politikoa dituen ildo eta erronka ezberdinei helduko diete askotariko ekimenakaz. Ildo horietako bat da «gatazka politikoa armatuaren konponbidean feminismotik eragitea». Oraingo honetan, «emakumeak eta kartzela» gaian sakondu gura dute; hala, Valladolideko espetxera martxa feministak egingo dute zapatuan, hilaren 11n; urteurrenaren lehenengo ekimena izango da hori. Bertara joateko arrazoiak bat da bertan emakume preso politikoa bakarria dagoela (Naikari Otaegi donostiarra). Guztira 12 dira espetxeetan bakartuta dauden emakume preso politikoak; halere, «Valladolideko egoera kaxkarrak eta Euskal Herritik «gertu» egoteak bertara hurreratzea eragin du». Besteak beste, «azken finean, ekimen jendetsu eta parte-hartzailea izatea nahi dugu; horregatik, egun berean joateko eta itzultzeko martxa izango da». Batirtze Lertxundi, Lur Moragues eta Uxue Iriondo Algortako Bilgune Feministako kideak azaldu dutenez, ekimen hori «elkartasun keinu bat» izango da. Diotenez, «euskal preso politikoen kolektiboan emakumeak gutxiengo dira; halere, bakartuta dauden gehienak dira».





Azaldu dutenaren arabera, «dispertsioa salatu nahi dugu, baita espetxearen funtzionamendua ere. Zigorrezko tresna bat besterik ez da, pertsona zein militante gisa jipoitzeko», azaldu dute.

Espetxera martxa egiteaz gainera, Euskal Herriko Bilgune Feministak beste hainbat ekimen egingo ditu urte osoan, berbarako sozio-ekonomia mintegia, martxoaren 25ean; VII. Topaketa Feministak, maiatzaren 6an; eta erakundetze feministaren inguruko mintegia, ekainaren 6an.

Euskal Herriko Bilgune Feminista antolakunde feminista eta abertzalea da, Euskal Herrian egondako tradizio feministaren ondorioa. Sorrera garaian, aipatu zuten, «hirurogeita hamarrek hamarkadatik gaur egun arte, esparru desberdinetan eta aha-

rai hartan zeuden beharrak». Aldez aurretik, 2001eko abenduan egindako topaketa batzuetan, antzeman zuten euskal feministak batzeko erakunde baten beharra zegoela. Ondoren, hurrengo urteko apirilaren 20an aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feminista, Donostian, lehen aipatutako agiria oinarri hartuta. Azaltzen dutenez, hor hiru lehentasun ezarri zituzten: emakumeen bizi-baldintzak hobetzea; Sexu-bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era jendartean ezagutaraztea; eta Sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaindituko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea. Halere, Algortako Bilgune Feministakoek zehaztu dute hasierako helburu horiek ere aldatuz joan direla urtez urte, «beharrizaren arabera». Diotenez, «emakumeok ahaldunduz eta jabetuz goazen heinean, jakin-mina pizten doa. Aldatzeko gogoia indartzen da, eta lehen ikusten ez genituen gauza asko ikusten hasi gara orain. Eta horrek fronte matxista guztiengana heltzea eskatzen du». Gauzak berrikusteko eta aztertzeko eredu hori «pizgarria eta pozgarria» dela diote, baina aldi berean «frustragarria» ere izan daitekeela aitortzen dute, «indarkeria matxista presente dagoelako non-nahi». Kontuak hala, Bilgune Feministaren jarduna gaur egungo errealitatera egokitze ahalegindu behar dutela argi dute.

#### Kolektiboki eta sarean lan egiteko beharra

Modu kolektiboan eta sarean lan egiten duen antolakundea da Euskal Herriko Bilgune Feminista, nazio-mailan zein herriz herriko talde-sareetan. Azken urteotan, ideologikoki bilakaera bat izan du erakunde feministak, «kolektiboki sortutako jakintzari esker», goraipatu dute Algortako kideek. «Praktika ko-

lektiboa da; kolektibotik eragiten dugu. Gaur egun indibidualismoaren aroan bizi gara, eta talde-lanean ibiltzea oso baliotsua da». Modu berean, askotariko esparru sozialetan diharduten euskal emakume feministek osatzen dute antolakundea, konpromiso- eta dedikazio-maila ezberdinak uztartuz, eta eremu ezberdinetatik eragitea ahalbidetuz. Feministak izanda, bizitza sozialaren eremu guztietan ematen den bereizkeria sexualari eta sozialari aurre egin gura diote, «ez soilik gure aldarrikapenen bidez, baizik eta gure egunerokotasunean, lan egiteko eran, irudian, hizkuntzan, harremanetan, kirolean, kulturean...».

#### Sastraka anti-sexista, aitzindari

Uribe Kostan dagoen Bilgune Feministaren talde bakarra da Algortakoa. Lehen, Leioan ere talde bat egon zen, baina daborduko ez dago martxan. Algortako taldearen kasuan, Sastraka Anti-sexista taldea akorduan dute Lertxundik, Moraguesek eta Iriondok: Sastraka gaztetxea zegoen orduan, eta sexismoaren kontrako talde mistoa osatu zuten hainbat gaztek. Ondoren, hainbat bilera egin ziren eskualdean, eta talde hartako batek proposatu zuen Bilgune Feministaren taldea osatzea, 2003-2004. urteetan beren-beregi. Orduetik, herrigintzan lan egiten duten bestelako hainbat taldegaz elkarlanean jardun dute, baita eskualdeko beste talde feministakaz ere. Azken horiekaz Koordinadora Feminista ipini dute martxan, kasu jakin batzuetarako elkarlanean jarduteko. Koordinadoran parte hartzen dute Erandio-ko Txoko Feministak, Itzurbaltzetako Emakumeen Asanbladak, Algortako Haziak taldeak eta Plentziako Sorginen Alabak taldeak, baita norbanakoek ere. Beste talde batzuek ere aliantzak osatu dituzte. ◀

### «Beti boterearen nahien menpe gaude. Berdintasun faltsua saltzen digute, gauzak bere horretan mantendu ahal izateko»

legin handiz, praktika eta teoria feminista bultzatu dituzten emakumeen eta talde feministen ondorioa gara. Gauzak aldatzeko, ezkutuak izan diren gure eta gure herriaren historia, hizkuntza eta errealitatea transmititzeko kemena izan duten emakumeen leinukoak gara gu geu».

Algortako Bilgune feministako kideek akorduan dutenez, nazio-mailako taldea topaketa batzuk egin ondoren sortu zen: «horiei begira manifestu bat kale-ratu zen, izenburua zuen *Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortzera* goaz. Hortxe finkatu ziren ga-



## Lehen/Orain

### Plentzia, 1920 inguru



Eskuman, lehenengo salmenta-ordainlekua. PLENTZIAKO ARTXIBOA

## Erretratua

### Enrique Aramburu Araluce

Plentziako Aramburu farmazia-museoko ugazaba



**Sendagaiak erosteaz gainera,** botikak eta analisiak egiteko erabiltzen ziren garai bateko lanabesak ere aurkituko ditugu Plentziako farmazia-museoan.

**G**atika atzean utzita, 1888ko urtarrilaren 4an farmazia zabaldu zuen Pedro Aramburu Mendietak, Plentziako Erribera kalean; data horretatik ia mende eta laurdenera, botikagaz batera, museoa ipini zuen bere bilobak, Enrique Aramburu Aralucek. Azken horrek akorduan duenez, «1893an farmazia-titulua zeukan eskualdeko herritar bakarra zen nire aitona». Gaineratu duenez, «garai batean, dirurik ez zeukatenei udalek ordaintzen zizkieten sendagaiak eta analisiak». Izan ere, botikak prestatu eta saltzeaz gainera, farmazietan egiten ziren hainbat mediku-azterketa, Aramburu Aralucek baieztatu duenez.

Aititari aitzak hartu zion lekukoa, eta, hasiera batean, Biologia ikasten hasi zen arren, biloba ere Madrilerara joan zen farmazia ikastera; 1982an hartu zuen sendiaren saltokiaren ardura Enriquek. Baina, bertan, urte luzez erabili izan ziren produktuez eta

lanabesez kezkatzen hasi zen beranduago botikari plentziarra; farmaziak ehun urte egin zituenean, beren-beregi. «Azken mendean sendagaiak bizi izan duten eboluzioa» erakutsi gura du museoan: «enpresa handiek ekoizten dituzten pilulek ordezkatu dituzte botikarien formula magistralak; ba-

**“ Botikak eta analisiak egiten genituen lehen; sendagai-saltzaileak baino ez gara orain ”**

tek daki zeren edo noren mesedetan», adierazi du Aramburu Aralucek. Birtartean, Plentziako Erribera kaleko farmazian ez da familiako saltzailerik faltako. Enriquek azaldu duenez, Espainia eta Euskal Herria artean Aramburu abizena daukaten 12 botikari daude; «historiarena beste kontu bat da», aitortu duenez. ◀

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua